

HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA: SAKONTZE EGITASMOA



ZUMARRAGAKO KALEETAN EUSKARAREN ERABILERA INDARBERRITZEKO PROPOSAMENA

Aitor Lizarazu Astigarraga
2011ko uztaila

AURKIBIDEA:

0. Hitzaurrea

1. Abiapuntua: kale neurketaren datuak

- 1.1. Euskararen ezagutza
- 1.2. Euskararen erabilera
 - 1.2.1 erabilera erdigunean
 - 1.2.2 erabilera adin taldearen arabera
 - 1.2.3 erabilera sexuaren arabera
 - 1.2.4 erabilera haurren presentziaren arabera
- 1.3. Soziolinguistika Klusterraren ondorioak

2. Zumarragara hurbilduz

3. Hizkuntza indarberritzearen teoria: HINBE

- 3.1 Hizkuntza Joshua A. Fishman-en RLS edo
 - 3.1.1. Zer da language shift (LS) edo luze-zabaleko mintzaldatzea (MA)?
 - 3.1.2. Zergatik gertatzen da mintzaldatzea edo language shift delakoa?
 - 3.1.2.1. Hizkuntza ahula erabiltzeko (eta , are, defendatzeko) debekua
 - 3.1.2.2. Physical and demographic dislocation (hizkuntza ahula lekuz eta demografiaren eten-urratzea).
 - 3.1.2.3. Dislokazio soziala: giza arteko eten-urratzea
 - 3.1.2.4. Dislokazio kulturala
 - 3.1.3. Zer da RLS edo Reversing Language Shift? HINBEren aurkezpena.
 - 3.1.3.1. Zertan da RLS betiko kontua?
 - 3.1.3.2. Zertan da HINBE hori "berria", aurreko konstruktuek ez bezalakoa?
 - 3.1.4. Nola egiten da HINBE? Kotsiderazio nagusiak
 - 3.1.5. Diagnostika: zertatik, eta zenbateraino, gaude gaixo?
 - 3.1.6. Azken gogoeta: zer ekarri digu Fishmanek, bere HINBEekin?

4. Plangintza: Zumarragako euskararen kaleko erabilera indarberritzeko proposamena.

- 4.1. Estrategia
 - 4.1.1. Urretxu-Zumarragako indarguneak
 - 4.1.2. Kontuan hartu beharreko irizpideak
- 4.2. Taktika
- 4.3. Ebaluazioa
 - 4.3.1. Galbahea
 - 4.3.2. Proposamena

5. Azken hitzak

I. eranskina: Euskararekin zerikusia duten udaleko akta historikoak

- II. eranskina: Zumarragako EBPNren kudeaketa plana 2010, ekintzen deskribapena.
- III. eranskina: Zumarragako Udaletik hezkuntza arautuko ikastetxeei zuzenduriko dirulaguntzen oinarriak 2011.

HITZAURREA

2008ko ekainean euskara teknikari lanetan hasi nintzen Zumarragan, nire jaioterrian, euskara teknikariaren hutsuneari erantzunez. Ordura arte helduei euskara klaseak emana nintzen euskaltegi eta barnetegietan, baina laster konturatu nintzen lehengaia bera izan arren: euskara, ofizioak erabat ezberdinak zirela batean zein bestean. Hortaz, hasiera hartan aurreko teknikariak eta inguruko herrietan, Urretxun bereziki, egin zutenarekin jarraitzearekin banuen nahikoa lan.

Lagunek udaletxean zer moduz nenbilen galdetzen zidatenean: “martxa hartzen” erantzuten nien urte edo urte eta erdia pasa arte. “Pelota partida izango balitz” gaineratzen nien “jasotzearekin badut nahikoa lan!”.

Urretxuko Udaletik, kale neurketa berri bat egiteko proposamena heldu zenean Zumarragako Udalara oniritzia eman zitzaion beste behin ere. Aurrez ere Urretxuk eta Zumarragak elkarrekin buru izan zuten kale neurketa 1993 eta 1997 urteetan erdigunean eta 2001, 2005 urteetan erdiguneaz gain beste auzoetako ibilbideetan.

2009ko datuek, euskararen erabileran jaitsieraren berri eman dute: 2001 eta 2005eko %22tik, 2009ko %18,9ra. Jaitsierak, hainbat galdera sortzen ditu Euskara Zerbitzuetatik burutzen ari garen lanaren gainean: egokia al da? Ditugun baliabideekin ba al dugu etekin hobea ateratzerik?

Jarraian aurkezten dudan azterlanak eta ondorengo proposamena udaletxeak aurrera daraman Euskara Biziberritze Plan Nagusiaren (aurrerantzean EBPN) osagarri eta egokitzapen izan nahi du. Lan honetarako ezinbesteko suertatu zait HIZNET Hizkuntz Plangintza Ikastaroan ikusiriko oinarri teorikoak, eta bereziki Mikel Zalbidek aurkezturiko Joshua Fishmanen Hizkuntz Indarberitze (aurrerantzean HINBE) teoria.

Halaber, interesgarria iruditu zait Zumarragan euskararen erabilerearen historia pixka bat ezagutzea egungo egoera hobeto ulertzen saiatzen aldera eta horri ere tartetxo bat eta eranskin bat eskaini dizkiot. Honi dagokionez, estimagarria izan da udaleko lankideen laguntza eta era berezian Zumarragako artxibozainarena, Antonio Prada.

Beraz, lehenik eta behin 2009ko kale neurketaren datuetatik abiatuko gara. Bertan Urretxu eta Zumarragako euskararen ezagutza datuak ematen dira alde batetik. Bestetik, euskararen erabilera portzentajea adierazten da guneka, adinaren arabera, egun eta orduaren arabera, haurren presentziaren arabera eta sexuaren arabera. 2009an bildutako datuez gain azken urteetan izan duen bilakaera ezagutzeko datuak eskainiko ditugu.

Zumarragaren errealitatera hurbiltze aldera, Zumarragaren bilakaera azken mendeetan nolakoa izan den pixka bat irudikatzeko hainbat datu emango ditugu. Honez gain, eranskin gisa, akta historikoetatik XIX. mende bukaeran eta XX.aren lehen herenean euskararen inguruan hartu ziren hainbat erabaki

ekarriko ditugu herriko euskararen inguruko politika zertxobait hobeto ezagutze aldera.

Zumarragaren irudikatze honen ondoren Mikel Zalbidek aurkezturiko Joshua Fishmanen RLS Reversing Language Shift delakoa azaltzen eta Zumarragako egoerara egokitzen saiatuko gara. Horretarako Zalbidek bere artikuluan jarraituriko bide bera jarraituko dugu geuk ere: Zer da Language Shift delakoa? Zergatik gertatzen da mintzaldaketa? Zer da RLS edo HINBE? Nola egiten da HINBE? Diagnostikoa: zenbateraino gaude gaixo? Zer hartu behar dugu kontuan?

Zumarragako euskararen erabilera ikuspegi honetatik aztertu ondoren, gure eguneroko udaleko lanean EBPNa eraginkorragoa izateko proposamenak eskaintzen saiatuko gara.

Azken finean, eta abiapuntura itzuliz, lan honen helburu nagusia kalean entzuten den euskararen erabilera handitzea izango da. Horretarako udaleko hizkuntz politikarako hainbat proposamen eskainiz.

Oharra: azterlanean “udalek” diodanean Urretxuko eta Zumarragako udalez ari naiz. Gauza bera gertatzen da “euskara zerbitzuez” hitz egiten dudanean. Bestalde euskaldun erabili dudan lekuetan elebidun uler daiteke, hau da euskara eta erdaradun.

1. ABIAPUNTUA: KALE NEURKETAREN DATUAK

Urretxuko eta Zumarragako udalek eskaturik Soziolinguistika Klusterrak 2009ko urrian Urretxu eta Zumarragako kale neurketa¹ burutu zuten. Neurketa honek Urretxuko eta Zumarragako kaleetako ahozko euskararen erabilera neurtzea du helburu metodologia zehatza jarraituz².

Ez da komeni ahaztea bai inkesta bidezko datu bilketetan bai kale neurketatan ere hainbat gorabehera eta zalantza izaten direla, baina oro har errealitatera hurbildu daitekeen argazki bat ematen laguntzen digu.

Laburpen azkar bat eginaz, kale neurketa maiztasun batekin burutzen den behaketa bidezko neurketa da. Urretxu-Zumarragaren kasuan maiztasun hori 4 urtekoa da. Bertan, eremu publikoan, kalean entzuten den euskara kopurua neurtzen da hainbat irizpide errespetatuz. Ondorioz, neurketa horretan hainbat informazio interesgarri biltzen da eta neurketen maiztasunaren poderioz bilakaera ikusi.

Esaterako, kale neurketen bidez, euskararen erabilera neurtzen dugu: gunea-zoka, adinaren arabera, egun eta orduaren arabera, haurren presentziaren arabera eta sexuaren arabera. 2009an bildutako datuez gain azken urteetan izan duen bilakaera ezagutzeko datuak eskaintzen dira txostenean.

Bertan bilduriko datuak 2010eko maiatzaren 7an aurkeztu zituen Olatz Altuna Soziolinguistika klusterreko kideak. Jarraian dituzue daturik esanguratsuenak:

- **Euskararen ezagutza:**


¹ "Hemen aurkezten ditugun datuak, 2009ko urrian Urretxun eta Zumarragan egindako Kale Erabileraren Neurketan jasotako datuak dira, bi udalerriak ikerketa batean batu dira, hau da, diseinu bakarra egin da biontzako, eta kasu batzuetan ibilbide berean bi udalerriak lotu dira. Neurketa honek, Urretxu-Zumarragan egiten den lehenengoa ez denez, erabileraren bilakaera aztertzeko aukera eman digu: 1993. urtetik aurrera erdigunean, eta 2001etik hona bi udalerririk osotasunean hartuta.

Hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak dira (erroldakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu objektiboan neurtzea ez delako erraza izaten. *Soziolinguistika Klusterrak* egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen ditu. Horretarako, gainera, oinarri metodologiko sendoa dago. *Soziolinguistika Klusterra* (aurretik *SEI Elkarte*) arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta, horrez gain, 70 bat udalerritan ere egin dira honen antzeko Udal Neurketa Bereziak." Soziolinguistika Klusterra, 2009: "Urretxu-Zumarragako kale neurketa 2009" (Argitaratu gabea).

² Kale neurketaren metodologia hobeto ezagutzeko: Z. Martinez, K. Berrio-Otxoa, O. Altuna eta N. Jausororen "Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak" (HIZNET 2011, 2.1 gaia).

Urretxu-Zumarragako euskararen ezagutza (2006)


■ EUSKALDUNAK ■ IA EUSKALDUNAK ■ ERDALDUNAK



3

Ezagutzaren bilakaera Urretxu-Zumarragan

— Euskaldunak — Ia euskaldunak — Erdaldunak



Iturria: EUSTAT

Ezagutzari dagokionez⁴, 1986tik 2006ra bitarteko datuetan herriko euskaldunen proportzioak gora egin du 13 puntu, %36,3 izatetik %49,6 izatera pasa da. Ia euskaldunen⁵ bilakaera ia konstantea izan da, %17,2tik %18,5erako bilakaera izan du. Aldiz, erdaldunen kasuan bilakaera negatiboa izan da eta 14,5 puntu egin du behera, %46,4 izatetik %31,9 izatera pasa da erdaldunen multzoa.

Beraz, ia erdia dira elebidunak eta herena baino gutxiago euskararik ez dakitenak Urretxu-Zumarragan. Dena den, jakin badakigu aldea izan ohi dela ezagutzatik erabilerara.

• **Euskararen erabilera Urretxu-Zumarragan**

³ Kontuan hartzekoa da aipaturiko datua hiztunen inkestetan aitorturiko datuak direla.


⁴ Kontua hartzekoa da datu hauek inkesta bidez hartuak direla.

⁵ Euskaldun berriak, gutxi gorabehera dakitenak...


2009an Soziolinguistika Klusterrak Urretxu eta Zumarragan egindako kale neurketaren arabera: **Erabilera indizea % 18,9koa da**. Hau da, kalean behatu diren 100 elkarrizketatik 19 bat izan dira euskaraz, 80 gaztelaniaz eta 1 beste hizkuntzatan.

Euskararen kaleko erabilera (2009)	Euskararen ezagutza (2006)
%18,9	%49,6 ³
Neurtutako hiztun kopurua (2008)	Urretxu-Zumarragako hiztun kopurua (2006)
4.190 (herriarren %27)	15.919

6



4 ibilbideen bilakaeran erreparatuz gero




⁶ 1 Hiztuna diogunean 2 urtetik gorako biztanleez ari gara; hots, hitz egiteko gaitasuna 2 urtetik gorakoek dutela kontsideratzen dugu.

2 Urretxuk eta Zumarragak, biak batuta, 2006ko erroldako datuen arabera 15.919 biztanle dituzte (Urretxuk 6.398 eta Zumarragak 9.521). Kontuan hartzekoa da, dena den, kale neurketa batean zenbait hiztun behin baino gehiago neur daitezkeela edota neurtutako hiztunen bat herrikoa ez izatea gerta daitekeela.

3 Bi udalerririk bereizita Urretxuko ezagutza-maila %54,6koa da eta Zumarragakoa %46,3.


Erabilera: erdiguneetan



Erdiguneren datuak 2001 baina lehenagotik baditugu. Hain zuzen ere, 1993tik 2009ra egindako neurketetan erabilerak gora egin du erdigunean, baina azken lau urteetan beherakada gertatu da.


Zonaldekako erabilera datuak ere baditugu 2001 urtetik aurrerago ikusiko dugun bezala.

Datuetan adin taldearen arabera erreparatzen badugu:



Adin taldekako bereizketa 2001tik dugu neurtua:

Adin-taldekako erabilerearen bilakaera (2001-2009)




Beraz 2009an:


- Haurrak: %30,4ko erabilera. 2001etik behera, 11 puntu.
- Gazteak: %15,3ko erabilera. 2001etik behera, 14 puntu.
- Helduak: %16,9ko erabilera. 2001etik gorra, 2 puntu.
- Adinekoak: %7,9ko erabilera. 2001etik behera, 6 puntu.

Sexuaren araberako datuak ere baditugu, baina ez dago alde esanguratsurik ez azken neurketan (%19 gizonak, 18 emakumeak) ezta bilakaeran ere.


Erabilera sexuaren arabera: bilakaera (01-09)



Haurren presentziak bai, badu eragin zuzena. Haurrak presente dauden egoeratan ematen den erabileratik, haurren presentziarik gabekora 21 puntuko aldea dago (%29 – %8).



Haurren presentziaren eraginaren bilakaera ezagutzeko, 2001etik 2009ra bitartean eginiko neurketetako datuak aztertuko ditugu. Azpiko diagramak adierazten du bilakaera hori:



Soziolinguistika Klusterrak ondorengo ondorioak azpimarratu zituen:

1) Erabilera indizea %18,9koa da. Hau da, kalean behatu diren 100 elkarrizketatik 19 bat izan dira euskaraz, 80 gaztelaniaz eta 1 beste hizkuntzatan. 1993tik 2009ra egindako neurketetan erabilerak gora egin du, baina azken lau urteetan beherakada gertatu da.

2) Zonaldekako emaitzen bilakaera aztertzerakoan nabarmentzekoa da 2001ean kale erabilerari dagokionean zonalde euskaldunenak ziren erdiguneko ibilbideak 2009an ere euskaldunenak izaten jarraitzen dutela (%20-25 inguruko erabilerarekin), baina bi ibilbideetan erabilerak behera egin du zortzi urtetan. (...)

3) Erabilera-maila altuena duen adin taldetik txikiena duen adin-taldera alde handia dago. Izan ere, haurrak dira herrian euskara gehien erabiltzen dutenak, %30,4, eta adinekoak gutxien, %7,9. Tartean dira, gazteak eta helduak, bi adin-talde horiek erabilera-maila antzekoa dutelarik, %16,9 helduek eta %15,3 gazteek. Azken zortzi urte hauetako bilakaerari erreparatuta, ondorio nagusia da haurren, gazteen eta adinekoen erabilerak behera egin duela: 11 puntu, 14 puntu eta 6 puntu, hurrenez hurren. Beraz, beherakada nabarmenena gazteen erabileran gertatu da, ondoren haurren erabileran, eta azkenik, adinekoen erabileran. Jaitsiera hau progresiboa izan da, hau da, 2001etik 2005era beherakada gertatu zen hiru adin-talde hauetan, eta 2005etik 2009ra ere beheranzko joera hori ez da eten. Helduen erabilerak, aldiz, goranzko joera leun bat izan du azken zortzi urteetan, bi puntukoa hain zuzen.

4) Urretxu-Zumarragako kaleetan emakumezkoek eta gizonezkoek euskara maila berean erabiltzen dute (%19 eta %18).

5) Haurren presentzia eragile garrantzitsua da. Haurrak presente dauden egoeratan ematen den erabileratik, haurren presentziarik gabekora 21 puntuko aldea dago (%29 – %8). Haurren aldagaia neurtu dugun hiru neurketetan (2001, 2005 eta 2009) haurren presentziaren eragina nabarmena izan da kale erabileran. Elkarrizketetan haurrak egotean (elkarrizketan zuzenean parte hartuz ala ez) euskararen erabilera-maila nabarmen areagotzen da. 2001ean, haurrak presente egon ala ez, aldea 18 puntua izan zen, ondorengo neurketetan aldea zertxobait handitu da, eta 21-23 puntura iritsi da(...).

Hauetz gain, azpimarratzekoa litzateke ezagutza eta erabileraren artean handitzen ari den aldea.

Pentsa litekeenaren kontra, neurketek gertutasun nabarmena erakusten dute metodologiari fidagarritasuna eskainiz. Hortaz, hamarrenak gorabehera badugu nolabaiteko kale erabileraren argazkia, are gehiago, agian garrantzitsuagoa dena: badugu erabileraren bilakaera eta adierazleen arabera behera egin du azken lau urteetan.

Olatz Altunaren aurkezpenaren ondoren iritzi trukaketa izan zen bertan bildutakoen artean. Bertan ziren Urretxu Zumarragako euskaltzale elkarteko kide batzuk, udal euskaltegikoak, ikastetxeetako hainbat irakasle, herritar interesatuak...20-25 lagun gutxi gorabehera. Erabileraren jaitzieraren arrazoen inguruko eztabaida izan zen ondoren bertaratuen artean. Soziolinguistika Klusterrak burutua zuen neurtze lana, baina benetako lana puntu honetan abiatzen da

Udalaren ikuspegitik, nola hobetu dezakegu geure lana, nola izan daiteke eraginkorragoa udaletik burutzen den hizkuntza politika?

Nire kasuan, lehenik eta behin, formazioa eskatu du honek eta hutsune hori bi bidetatik osatzen saiatu naiz: Zumarraga herriaren bilakaera ezagutzuz alde batetik eta soziolinguistika formatuz bestetik. Alde batetik Zumarragako herriaren historia azaletik bada ere ezagutzeak erabileraren tasun batzuk konprenitzen lagundu dit, bestetik HIZNETeko gradu-ondokoan aurkitu dut azterketarako eta proposamenerako oinarria, Mikel Zalbideren hitzetan Joshua Fishman soziologo estatubatuarraren Reversing Language Shift delakoarekin.

Baina joan gaitezen banan-banan, eta azkar batean bada ere ezagut dezagun pittin bat Zumarraga herriaren bilakaera.

2. ZUMARRAGARA HURBILDUZ

Zumarragak erdi-arotik harremanak izan zituen bai Lazkaoko Jaunarekin lehenik eta Segurarekin ondoren⁷. Zumarragak 1661ean jaso zuen hiribildu titulua.

Zumarragaren webgunean⁸ hauxe irakur daiteke:

Hasiera batean Zumarraga gune sakabanatuz eraturiko herria zen, Zumarragako Andre Mariaren, gaur egun Antio izenez ezagutzen dugun horren inguruan diren baserriez funtsean. Baina urrunegi omen, eta XVI. mendearen bigarren herenean zehar parrokia haran hondora, ibarrera jaisteko eskaria egin zieten herritarrek eliz agintariei. Garbi noiz izan zen ez dakigun arren, Eitzako hiri izaerako gune nagusia sortu zen, Santa Engraziaren basilizaren, egungo San Gregorioren inguruan hain justu, eta San Kristobalgo basilizaren inguruan ere ba omen zen beste gune bat.

Beraz, Zumarragaren herrigunea berantiarra da, ia XVI. Mendera arte ez zen herrigunerik izango Zumarragan, bai ordea Urretxun 1383tik hiribildu. Efemeride eta datu interesgarri batzuk aipatzearren:

Herriaren historian zehar bada hainbat une edo gertaera berezi, hala nola: lehenbiziko Udal Ordenantzak, (...) hamabostean behin, ostegunez, egiteko merkatua jartzea 1865ean, inguruko baserrietako produkzioaren irtenbidetzat; Udaletxe berriaren inaugurazioa 1866an, (...) 1890ean Eskola Berriak inauguratu izana; eta 1930ean Esteban Orbegozo, S.A. enpresa herrian kokatu izana, lanpostu asko eta asko sortu baitzituen, 50eko hamarkadan zehar etorkin saldo handiak erakarriz herrira, demografi hazkunde izugarria eraginez -biztanle kopurua laukoiztu egin baitzen-, 1977an helduz 12.619 biztanleko kopurura. Une horretatik aurrera, krisialdi ekonomikoak alderantz egin zuen joera, eta berezko

⁷ "Zumarragari buruzko lehenbiziko datuak 1366an agertu ziren, tronua eskuratu nahi zuen Enrikek, XIV. mendearen erdialdean Pedro I.a bere anaiordearen kontrako gerra zibilean ari zelarik, Zumarragako Monasterioa Lazkaoko Jaunari eman zionean. Geroago, inguru honetako biztanleek Ahaide Nagusi horren pean jasaten zuten kontrol zorrotzetik askatu nahirik, 1383ko abenduaren 11an, Urrutia izeneko tokian, egungo Eitzako auzotik hurbil alegia, konkordia-eskritura bat sinatu zuten Urretxu hiribildu sortu berriarekin. Agiri horren baiezpena Joan II.ak eman zuen 1385ean, eta Enrike III.ak berretsi zuen. Hala eta guztiz ere, 1405ean indarrak gabe laga zituzten erabaki horiek, eta herri biek Seguraren jabetzapean geratu behar zutela dekretatu zuten; eta halaxe izan zen 1411 arte. Zehazterik ez dugun garai batean herria Aleriako Alkatetza Nagusian sartu zen, eta bertan mantendu gainera 1660 arte" Beraz, bai Lazkaoren bai Seguraren agindupean izan zen Zumarraga..

⁸ www.zumarraga.net

hazkundera baino handiagoko emigrazioa hasi zen, egungo 10.324⁹ biztanleraino jaitsiz kopurua.

Hauetz gain, aipatu behar:

Zumarraga izan zen Migel Lopez de Legazpiren jaioterria. 1897az geroztik bere estatua herriko plazan duen horrek Filipinar Irlak kolonizatu zituen XVI. mendean, eta oraindik ere zutik dago haren jaiotetxea, duela urte batzuk eginiko birmoldaketa lanen ondotik. Legazpi Dorretxea edo Jauregi Haundia izenak ematen dizkiogu.

Zumarragaren bilakaeran...

Aipamen berezia merezi du trenbideak, Zumarragaren historian erabakigarria gertatu den elementua baitugu, hiru geltoki desberdin izatera heldu gara eta. 1864an inauguratu zuten Norteko Trenbidea - gaurko RENFE-, Madril-Paris lineaz; 1889an inauguratu zituzten Ferrocarriles Vascongados haiek, Zumarraga-Maltzaga lineaz; eta azkenik, 1926an, Urolako Trena, "Gure Trena" ospetsua, Zumarraga-Zumaia lineaz. Elementu honek, Vicente Larreak egin (1986) eta udaletxean kokatuta dagoen eskultura batean alegoria gisa azaltzen denak alegia, Euskal Herriko komunikazio-gunerik garrantzitsuenen artean jarri zuen herria, Gaztelako Goi Ordokia Gipuzkoako kostaldearekin eta Bizkaiarekin lotzen baitziren bertan. Gaur egun RENFEren lineak bakarrik segitzen du lanean.

Artxiboko datuen arabera, badirudi XIX. Mendera arte Zumarraga kale bakarreko herrigunea zuela gaur egungo Kalebarrendik Eitzara Piedad kaletik igoaz. Bertan kokatzen da Ama Jasokundearen parrokia. Trenaren etorrerak XIX. Mende erdialdetik aurrera Kalebarrendik geltokietarako "Kaleberria" eragin zuen eta XX. Mendean zehar izandako emigrazio aldiekin esan liteke osatu zela Zumarragaren herrigunea¹⁰.

Euskararen erabileraren historiari dagokionez, udaletxean bilduriko dokumentazioan erreparatuz, badirudi XIX. mendera arte Zumarragan ia inork ez zekiela gaztelera idazkariak (eskribanoak) izan ezik. Are gehiago, Antonio Prada, Zumarragako Udaleko artxibozainaren arabera, batzar eta bilera guztiak euskaraz izaten ziren nahiz eta ondoren idazkariak gaztelarara itzuli behar izan. Euskaraz ari eta bizitzen ziren bertako herritarrak euren auzoetan Agina, San Cristobal, Soraitz eta Elgarresta auzoetan. Gaur egun ere, neurketarik egin ez dugun arren, euskaraz entzungo dituzu Aginako Zumakorta baserritik Isuskitza baserrira, baita Leturia auzoko Leturigoenatik hasita Oraa etxera, edo Soraitz auzoko Osinaldetik Urruti baserrira ere. Landa eremuan ez da euskararen transmisioan etenik izan.

⁹ 2010eko abenduaren 31ko datuen arabera:

¹⁰ Prada, Antonio (1989) "Zumarragako kaleen historia" Zumarragako Udalaren urbanizatzearen historia.

Herriguneean ordea, kalean, XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera (Norteko ferrokarrilaren etorrerarekin) lehen etorkinak¹¹ azalduko dira Zumarragan eta euskararekiko lehen ardurak¹² ere piztuko dira. Dirulaguntzak eskaintzen dira euskararen inguruko aldizkariari, Lore jokuan antolatu ziren 1899an, euskarazko liburuak erosten dira... Horrez gain hainbat lanpostutarako euskara jakitearen beharra azpimarratzen da: al baitariak, pregoilariak, aguazilak eta idazkariak aktetan jasotakoaren arabera derrigorrez zuten euskara jakin beharra herritarrei zerbitzatu ahal izateko, garaiko euskaldun elebakarren presentzia agerraraziz.

1936ko gerrak eten zuen loratze hura eta gerra osteko garaia isila izan zen euskararentzat. Hurrengo hamarkadetan aktetan ez dago euskararen arrastorik. Soilik Miguel Lopez de Legazpiren ereserkia euskaratik gaztelerara itzultzea agintzea baino 50eko hamarkadan.

Isiltasuna emeki-emeki 60 hamarkadaren amaieran hausten hasiko da Ikastolaren sorrerarekin. Handik hona, euskarari dagokionez, azken berrogei urte hauen historia irudikatzen lagun dezake Jone Hernandez¹³ "Eta hizkuntza kare-morteroa balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa" artikuluak, Lasarte eta Urretxu-Zumarragan dauden aldeak onartuz.

¹¹ Udaletxeko aktetan agertzen dira kanpoko abizena duten zinegotziak: www.zumarraga.net

¹² Ikus II. Eranskina, udaletxeko akta historikoetatik bildutako laburpenak.

¹³ Hernández, Jone Miren (2011), "Eta hizkuntza kare-morteroa balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa".

3 HIZKUNTZEN INDARBERRITZEAREN TEORIA: HINBE

Arestira itzuliz, 2009ko kale neurketaren datuetatik abiatu gara. Bertan Urretxu eta Zumarragako euskararen ezagutza erabilera datuak eskaini zaizkigu ikuspegi ezberdinetatik: adinaren arabera, haurren presentziaren arabera eta sexuaren arabera. 2009an bildutako datuez gain azken urteetan izan duen bilakaera ezagutzeko datuak eskaintzen dira kale neurketaren txostenean. Guzti honek galdera bat sortu digu: nola baliatu ditzakegu datu horiek aurrera begira?

Galdera horri erantzun asmoz, oinarri teorikoen bila, Hizkuntz Normalizaziorako gradu-ondokoan¹⁴ HIZNETen Mikel Zalbidek aurkezturiko “Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teorikoa” lanean oinarrituko gara. Bertan, Joshua Fishmanen, soziologo estatubatuarren, Reversing Language Shift teoria Zumarragako egoerara egokitzen saiatuko gara. Horretarako Zalbidek bere artikuluan jarraituriko bide bera jarraituko dugu geuk ere: Zer da Language Shift delakoa? Zergatik gertatzen da mintzaldaketa? Zer da RLS edo HINBE? Nola egiten da HINBE? Diagnostikoa: zenbateraino gaude gaixo? Zer hartu behar dugu kontuan?¹⁵

3.1. HIZKUNTZA JOSHUA A. FISHMAN¹⁶-EN RLS EDO HINBE

Atariko hitzak

Mikel Zalbidek bere artikuluan¹⁷ atarikoa honela hasten du: “Soziologia jakintza-alor gaztea eta osatugabea” da. 40 urte inguruko bidea omen du soilik eta, aurreikustekoa den moduan, “mundu zabalean dauden ehunka edo (segururago) milaka konstelazio etnolkultural arriskupekoren situazio konkretuak ezin ezagutu ahal izan dituzte”. Dena den arlo honetan ere aurrera pausoak eman direla gaineratzen du:

¹⁴ Ikus <http://hiznet.asmoz.org/>

¹⁵ Ez dut uste Mikel Zalbidek baino hobeto azal dezakedanik hizkuntzen indarberritzearen teoria, beraz, ahal dudan neurrian berak esana errespetatuko dut. Bide batez, teoriaren azalpen osoa azaltzen saiatuko naiz, Zumarragan proposatzeko asmo duguna hobeto aurkezten duelakoan.

¹⁶ Joshua Aaron Fishman (Philadelphia, AEB, 1926 -) hizkuntzalari estatubatuarra da. Mundu mailako ospea du, batez ere, hizkuntzaren soziologiaren gainean, baita elebitasun, etnizitate eta hizkuntza plangintzaren gainean ere.

Pennsylvaniako eta Columbiako unibertsitateetan ikasi zuen. 1960an lortu zuen New York-eko Yeshiva Unibertsitatean psikologia irakasle plaza. Egile hau hizkuntzaren soziologiaren aitapontekotzat hartua izan da. Berak sortu zuen International Journal of the Sociology of Language aldizkaria.

Eremu urriko hizkuntzen ikerketa bultzatu du, horien artean euskara ere kontuan hartu duelarik. Euskal Herrian izan da zenbaitetan 1980ko hamarkadan hasita: Hizkuntza-plangintzako jardunaldian, Euskal Mundu Biltzarrean, Euskal Eskola Publikoaren lehen kongresuan... Reversing Language Shift izeneko liburuan kapitulu bat eskaini zion frasierari eta euskarari. (http://eu.wikipedia.org/wiki/Joshua_Fishman)

¹⁷ Mikel Zalbide eta Xavier Erize (2001), “Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teorikoa”.

Langintza horretan leku nagusia okupatu du, begiratzen den aldetik begiratzen dela, Joshua A. Fishman irakasleak. Bai elaborazio kontzeptualaz, bai lehendikako konstruktua teorikoak hizkuntz soziologiaren (aurrerantzean: HS-ren) jakintza-gai berriari txertatzeari dagokionez, eta bai zientzi adar berriari mundu mailako perspektiba zabala eskaintzea denaz bezainbatean, jakintza-alor honetan aurrera egin nahi izan duen edonoren buruzagi eta ildo-berritzaile gertatu da Fishman irakaslea. Berak landuak dira adibidez, inork baino kontzeptualizazio- lanketa handiagoz agian, **dominance configuration**, **language spread** eta **language shift** kontzeptuak. Azkeneko horri helduko zaio hemen batez ere, language shift edo mintzaldatzeari alegia. Hizkuntz ordezkapena ere esaten zaio gure artean.

Ondoren zehaztu egiten du language shift edo mintzaldatzea:

Zaragozara zoazenean, tabernara edo enpresa batera sartu eta erdaraz hasten zarenean, hori ez da language shift. Ezer izatekotan code switching da hori, edota horretatik hurbilago dago behintzat, normalean. Horretaz ez gara ari, ordea.

Aurreraxeago azaltzen duenez mintzaldatzea ematen da “hiztun talde batek, jardun-esparru batean edo askotan, luze-zabalean” aldaketa eman duenean.

Ez dirudi gehiegi denik esatea XX. hasieran oraindik Zumarragako euskararen eguneroko mintzajardun zabal arrunta euskararen alde makurturik zegoela. Hor izango zen, noski, gaztelera eskoletan eta agintarien artean, baina euskarak menperatuko zuen etxean (gehienetan), kalean, taberna zulotan, jai-ospakizunetan eta zelai-soroetan. Euskara zen hizkuntza menperatzailea, Fishmanen dominance configuration, eremu horietan. Baina XXI. mendera jauzi eginez inork gutxik onartuko dizkio menpekotasun horiek euskarari gaur egun: XX. mendean zehar mintzaldatzea eman da, hau da, jardun esparru batzuetan euskara erabiltzetik gaztelera erabiltzera pasa da. Ondorengo pasartean ordezkatu dezagun Aiete Zumarragarekin eta kontsidera dezagun A euskara dela eta B gaztelania, hartara Reversing Language Shift zer den ulertuko dugu.

Fishmanen konstruktua (hemen aztertuko dugun formulazio teorikoa) badakizue zein den: gaixorik dagoen hizkuntza bat indarberritzeko (zenbait kasutan, gero ikusiko denez, biziberritzeko) Reversing Language Shift. Hots, Aieteko Language Shift (LS) edo mintzaldatze horri buelta eman eta Atik Bra joaten ari ziren urak berriro ere Btik Ara eramatea.

Eramatea baino saiatzea litzateke egokiagoa. Euskaraz RLSren itzulpen gisa Hizkuntza INdarBErritzea (HINBE) erabiltzen du Mikel Zalbidek. Are gehiago:

Fishmanek ez du, bere konstruktua horrekin, garantiarik eskaintzen. Sokatiran egin behar bada, eta aurrean tokatuko zaiguna geu baino ahulagoa nekez izango dela pentsa badezakegu, gure indar-apurrak alferrik ez galtzeko gomendio-sorta eskaintzen du Fishmanek (...). Eta

jakina, HINBE edo RLS zer den ondo entendituko bada **LS zer den, noiz gertatzen den eta zergatik aurrera egiten duen jakitea behar-beharrezkoa da.**

Jarraian adierazten digun bezala mintzaldatzeak intentsitatea ez delako beti eta leku guztietan bera.

3.1.1. Zer da language shift (LS) edo luze-zabaleko mintzaldatzea (MA)?

Gorago aipatu dugun bezala, esparru edo jardun batean talde batek hizkuntza bat erabiltzeari uzten dionean beste bat erabiltzeko sistematikoki. Honetan ere eritmo eta oztopo ezberdinak aurkitzen ditu hizkuntz aldatzeak:

Language shift edo mintzaldatzea ez da, esan berri dugunez, kolpean eta erabat (gizarte-bizitzaren esparru guztietan) gertatzen den fenomeno, hori baino ondotoz gauza xehe- konplikatua goa baizik. Eta orduan, jakina, berez bezala sortzen zaigu galdera: non eta nola sortzen da mintzaldatze (MA) hori? Pausoz pauso, urratsez urrats gertatzen da maiz mintzaldatze-fenomenoa¹⁸.

Aipatu dugun bezala mintzaldatzea taldeetan ematen den fenomeno bat da (guraso, langile, eskola ume, elizatar...) Fishmanek aparteko garrantzia ematen die hauetariko batzuei, bereziki: familia eta etxea, auzoa, lan-mundua, eskola, eliza eta administrazioa. Are gehiago, posible da hizkuntza aldaketak eremu batzuetan besteetan baino oztopo handiagoak izatea (nekazal munduan, zaharren artean...).

Hizkuntz aldatzea neurtzeko era ere proposatzen digu

Funtsean, hiztun-herri edo hiztun-talde jakin baten mintzaldatzea neurtu nahi badugu zera argitu behar dugu: A denbora-unean (orain dela 25 urte, adibidez) eta B denbora-unean (aurten, esate baterako) hiztun-talde jakinaren mintzajardunean (esparru eta harreman-sare desberdinetan) zein hizkuntza den nagusi. Zein zen nagusi orduan, eta zein den nagusi gaur. Hori da koska, uste baino gainditzen zailagoa.

Uste baino gainditzen zailagoa dio ez baita erraza A denborako hizkuntza-jardueren ezagutza erabat zehatza izatea. Halaber ez da erraza domain nagusien zerrendarekin bat etortzea:

Honekin esan nahi dena zera da, domain edo jardungune-zerrenda definitiborik ez dagoela:

Baina daudenen artean onartuenetariko bat hauxe omen da:

¹⁸ "bat-bateko kasuak ere badira, gero aipatuko denez, baina gure ingurumeneko adibide gehienak "a slow cumulative process" (RLS, 40) ageri dute". Mikel Zalbide

- Etxea eta familiartea (bigarrena zabal(xe)agoa izan ohi da lehenengoa baino, tartean hartzen baititu beste nonbait bizi diren aitona-amonak, izeba-osabak, lehengusuak eta abarrekoak ere.
- Auzo hurbila eta lagunartea.
- Lan-mundu "arrunta" (zer da, ordea, "arrunt" egungo egunean, posta elektronikoz eta internetez gero eta sarriago baliatzen garen honetan?)
- Aisialdia, kirolak eta jokoak (demagun, bakoitzetik bina emateko, zinea eta telebista; jogginga eta futbola; karta-jokoa eta bideo-programak)
- Eskola-mundua (txiki-txikitatik hasi eta unibertsitate-atariraino, lanbide-heziketa barne, edo are lizentziatura-mailaraino)
- Administrazioa
- Eliz mundua.
- Goi-mailako teknologia, ekonomi sareak, agintaritza eta ikerketa.
- Informazio eta zabalkunde mundua.

Makro mailatik mikrora jauzi eginez gero:

rol-harreman hauek har ditzakegu kontuan: a) senar-emazteek elkarren artean; b) gurasoek seme-alabekin; c) aitona-amonek ilobekin; d) anai-arrebek etxean, elkarren artean; e) gurasoen belaunaldiko beste familiarrekin harremanak; f) orobat seme-alabekikoak, ... Ikusten da, hemen ere, intuizioak eta konbentzioak bere pisua dutela.

Beraz, hemen ere ez dago sailkatze bakarrik.

Dena den, mintzaldatzearen bi ardatz nagusiak denbora eta hizkuntzaren erabilera-esparrua dira. Saia gaitzen Fishamen adibidea oinarri Zumarragako mintzaldatzearen proposamen bat eskaintzen. Zumarraga herriaren bilakaera ikusirik interesgarria iruditzen zait baserritarrak eta kaletarrak bereiztea. Argi utzi nahi nuke, hemen jartzen dudana hizkuntzaren erabilera diskutigarria izan daitekeela, baina mintzaldatzea nola eman den azaltzen lagun dezakeelakoan hemen duzue:

¡Error! Vínculo no válido.

MEDIA	OVERTNESS	DOMAIN	ROLE RELATIONS	1899	1950	1999
MINTZAMENA	EKOIZTU	FAMILIA (BASERRIKOA)	SENAR-EMAZTE	E	E	E
			GURASO-HAUR	E	E	E
			AITONA-AMONA BILOBA	E	E	E
			ANAI-ARREBA	E	E/G	E
			GURASOEN AHAIDEAK	E	E	E
			HAURREN AHAIDEAK	E	G/E	E
		BIZILAGUNAK	LAGUNAK	E	E	E
			EZAGUN	E	E/G	E/G

		KIROL / AISIA	JENDARTEA	E	G	G
		HEZKUNTZA	IRAKASLE-IKASLE	G	G	E
			IKASLE-IKASLE	E	G	E/G
		LANA	NAGUSI-LANGILE	E	G	G
		GOBERNUA-ADM.	FUNTZION-HERRIT	E	G	E/G

Hainbat xehetasun: 1899an bai kalean bai baserri eremuan euskarak domain guztiak mantentzen zituen hezkuntza eta administrazioa izan ezik. Bereak ziren familia esparrua, lagunartea aisia eta baita lana¹⁹ ere.

1950ean, aldiz, lehengo erabateko nagusigo horiek iraulirik ageri dira eta baserri eremutik kanpoko rol-harreman guztiak erabat gaztelaniaren nagusigo-esparrura paseak dira. Dena den, pentsatzekoa da etxe barruan batzuek mantendu zutela euskara.

Elebidunen artean Mikel Zalbidek dioen bezala:

Euskarak etxean zeukan indarra, 1957an. Etxean eta, bigarren maila batean, ohiko lagunartean. Administrazioa, lan-mundua, hezkuntza, astialdiko ikuskizunak eta kirola erdararen esku ageri ziren, ordea, erabat. Menderik mende indar betean egondako diglosiaren azken errainuak ditugu hor, begien bistan: etxea eta auzogiroa, lagunarte hurbila (bai eta taulak, oker nire ustez, azaltzen ez duen lan-mundu arrunta: esku-langintza tradizionala, makina-erreminta, altzarigintza eta burdingintza) euskararen gotorleku ziren oraindik, hondamenetik urazalean gelditzen ziren heinean.

1999an aldiz, badator euskararen birgizarteratze bat, eta Mikel Zalbidek Donostiarako adierazia aprobetxatuz

leku edo "lekutxo bat" egiten hasi da euskara hogeita hamar arte lehenago gaztelaniak oso bereganaturik zeuzkan esparruetan: administrazioan, kultur emankizun eta kirol-aisialdietan, erdi-mailako lan-lekuetan eta, batez ere, hezkuntzan.

XX. mendean zehar, euskarak bere domain eremu ia-guztiak galtzetik (etxe batzuetan salbu) administrazioaren eta hezkuntzaren bidetik berreskuratzen hasi da. Landa-eremua da XX. mendean zehar gaztelaniaren language spread (erdararen hedapen-zabalkundeari) eutsi ahal izan dion eremu bakarra esango nuke. Dena den, eremu honek eta urbanoak ez dute pisu bera demografiari

¹⁹ Kontuan hartzekoa da 2. sektoreko enpresa nagusienak XX. mendean sartu zirela Esteban Orbegozo kasu.

dagokionez ondorioz herritarren pertzepzioa Zumarragan euskaraz ez dela inoiz egin eta horrelakoak.

Ariketa honetan soilik ahozko ekoizpenetara mugatu gara eta interesgarria litzateke idatziari ere erreparatzen astea, idatzi inoiz baino gehiago idazten delako eta adituek diotenaren arabera XXI. mendea idazketaren mendea izango baita.

Dena den, inork borondaterik izanez gero, ondo legoke hemen ariketa eta mintzaldatzearen adibide gisa burutua zehaztasun gehiagorekin aztertuko balitz.

3.1.2. Zergatik gertatzen da mintzaldatzea edo language shift delakoa?

Mikel Zalbidek dionez, hizkuntza ahula pertsona eriarekin konparatzen du Fishmanek:

zera esaten du Fishmanek: gaixotasunak eta gaixotasunak (larriak eta arinak, edo ez hain larriak) daudela egon. Era berean, sendabideak ere paliatiboak direla batzuk (oinazea kentzen edo molestia arintzen dutenak, nahiz gaixotasunak bere horretan segi edo okerrera egin), eta amelioratiboak, hobera egitekoak alegia, besteak (gaixotasunari aurrez aurre erantzun eta, asko edo gutxi, osasuna hobetzen dutenak). RLS kontuan ari denak garbi bereizi behar ditu bi horiek, bai LSren deskribapenean eta bai sendabideen lehentasun-zerrenda prestatzerakoan.

Baina zergatik gerta daiteke mintzaldatzea? Azter ditzagun gurean izan duten eraginarekin.

3.1.2.1. Hizkuntza ahula erabiltzeko (eta, are, defendatzeko) debekua

Gure herri honetan oraindik ere badugu debekuen oihartzunik:

Nork bere seme-alabak bere ohituraren, bere jokabide-arau, balore eta kultur hobespenen arabera hazi eta hezi ezina, hori da debekuak berez dakarrena.

Normalean hizkuntza-kultur debekuak beste zerbaiten adierazgarri izaten dira. Dena den Mikelek adierazten duen bezala:

Ez da hori, hamarretik bederatzietan (eta dokumentu-oinarri argiz ezagutzen dugun heinean) euskararen galbidearen motibo nagusia. Eskoletako eraztunaren kontua, aldiz, ondotoz gauza sakonagoa eta, itxura guztien arabera, hedatuagoa izana da. Hori ere doktorego-tesi baten eskan dago, ordea, orroa bizian.

Zumarragako Udaleko akta historikoak²⁰ begiratzea besterik ez dago 1936ko gudak euskararen aldeko jardueri eman zien etena antzemateko. Dena den, galeraren ardura gerra eta gerra ondorengo debekuari egotzi nahi dionak irakurri dezala Xabier Lizardi euskal idazlearen gerra aurreko honako pasartea:

“Negargarria eta arrigarria! Gaurdaño etsirik bageunden uri aundietan, Donosti batean, Irun batean, Tolosa batean, gipuzkoarren mintzo gozoa galtzen zijoala, guraso arroak nunbait zakarregitzat jota, bere aurren ezpaintxo minberak larrutuko dituan beldurrak edo... ez genekian, ez nik behintzat, Gipuzkoaren biotzean, Gipuzkoako alderdi joriaren erdian, erri az aundi batek, Zumarraga batek, beste aiek bezin ostikopetua zuanik euskera. (...)

Urteak joan, urteak etorri, gaurko egunera gatoz, ta...? Euskera erdi galdurik daukagu Euskalerrian...! Ene! Zer gerta ete! Beste erri zitelen bat sartu zio indarrez ta odoletan ito ditu euskaldunak, azpiratu ditu, xautu ditu! Ez enetxok! Orixe baño gutxiago gertatu da. Inor ezta emen indarrean sartu, inork ez gaitu jan, zapaldu, ezerezin... Soil-soilik euskaldunok gure odolaz lotsa izan gara, ta geren aurrei euskaldun-antza lapurtzea erabaki dugu. (...) Baña guk, milla ta millaka urte oien buruan, lokarri done ori geronek austeia erabaki degu; gu ta gure aurtxoan bitartean eten, gure odolekoak iduri eztezetan... Erru lotsagarri ori gere gain artzeaz ez gera lots, ez gera beldur! (Lizardi 1928)

3.1.2.2. Physical and demographic dislocation (hizkuntza ahula lekuz eta demografiaz eten-urratzea).

Eten-urratze edo dislokazio fisikoa.

Dena den zalantzarik gabekoa izan zen gerra zibilak eragin zuen etena - Zumarragako Udaleko akta historikoetan ere antzeman daitekeena- eta giza-triskantza. Honek ere eragin zuen mintzaldatzean:

Hiru motibo nagusi ematen ditu berak (Fishman-ek), dislokazioaren kausa fisikoak azaltzerakoan: gosetea, katastrofe naturalak eta gizakiaren txikiziozko interbentzioa.

Ez dirudi hemen dagoenik Zumarragako mintzaldatzearen arrazoia.

Eten-urratze edo dislokazio demografikoa.

Azpimarragarriagoa dirudi XX. mendean Zumarragak bizi izan duen immigrazio prozesua:

²⁰ Ikus I eranskina.

Bere hizkuntza egiten den herritik zeharo beste bat egiten den herrialde batera joaten bada jendea (bere gogoz eta hartara beharturik), edota berea ez den hizkuntza bat egiten duen jendea etortzen bazaio herrira, samaldan etorri ere, bere hizkuntza galtzeko arriskua begien bistakoa da.

Gutxi izango dira Zumarragan -eta inguruko herrietan- euskararen galeraren arrazoi nagusi Orbegozo eta beste fabriketara samaldan etorri ziren etorkinak izan ez zirenik. Errepara diezaiegun Zumarragako biztanleri datuei²¹ XX. mendean zehar:

Urtea	Biztanleria
1901	2.000
1911	2.043
1921	2.064
1931	2.418
1941	3.237
1951	3.598
1961	7.151
1971	12.215
1981	11.798
1991	11.020
2001	10.108
2010	9.957


Kopuruak grafiko batean irudikatuz:

²¹ "Populazioaren lehendabiziko finkapen gunea mendian aurkitzen dugu, bailaratik urrun. Zoraitzeko (gaurko Andra Mari, "Antioko"ren baselizaren inguruan), eta Aranburu - Elgarrestako baserri auzoetan hain zuzen. Horren probarik adierazgarriena lehenengo tenplu parrokiala hortxe eraiki zutela dugu.

XV. mendearen azkeneko urteetan eta XVI. mendearen hasieran jendea bailarara jaisten hasi zen, mendiko lurrek ez baitzuten behar zuten adina ematen. Eitzaga auzoa eratzen hasi zen. Mende horren erdialdean dagoeneko bazen jendea Zufiaurre (gaur egungo Kalebarren) inguruan.

Bailaran jendea egoteak biztanleek tenplu parrokiak bat bertan eraikitzea eskatu eta lor zezatela eragin zuen. Eraikitze horren lanak 1576. urtean hasi ziren. Aurreko tenplu parrokiak baseliza gisa geratu zen."

(Biztanleria datuak www.zumarraga.net)



Halaxe aipatzen da udalaren webgunean (www.zumarraga.net)

Aldaketa aipagarririk gabe mantendu zen biztanleria denbora luzean, 2.000 biztanle inguruz, baina 50eko hamarkadaren eta 60koaren hasieran udalerraren industri garapen handiak immigrazio bizia eragin zuen; 1977an 12.619ko biztanle kopurua zen herrian.

Interesgarria izango litzateke hamarkada horien inguruko azterlanik egitea: nondik etorri ziren, nola, zerk bultzatuta, zer aurkitu zuten hemen... Dena den biztanleri hazkunde horren ondoren egonkortu eta jaitsiera ere etorri da.

Baina urte horretatik aurrera (1977), petrolioaren krisialdiak eta, oro har, industriaren eraginda, joera alderantz egin zen, eta biztanleriak pixkanaka-pixkanaka beherantz egin du, berezko hazkundera ez baita gertatzen ari den emigrazioa berdintzeko gai izan.

Beste alde batetik, **dislokazio demografikoarekin** jarraituz seme-alaba gutxi izatearen arrazoia aipatzen da, orain artean gutxi aztertua izan dena. Aipatu ere aipatzen da etorkin batzuek seme-alabak izateko indize handiagoak dituztela bertakoek baino eta horrek ere eragin dezakeela gaur egun. Dena den, hori baino pisuzkoago argudioa iruditzen zait eten-urratze demografikorako immigrazioak eragindako urbanizatzearena.

Urbanizazioa. Ordura arte baserri-giroan (edota, artzain-jendearen kasuan, etengabeko harat-honatean) bizi izandako populazioa (baserritar-jendea, gure artean esan ohi zenez) urbanizatzen denean (bizi izatera "kalera" jaisten denean, orain dela gutxi arte esan ohi zen

moduan), bizilekuaren aldaketa horrek ondorio nabarmenak izan ohi ditu jende-multzo horren ohituretan. Eten eta urratu egiten dira ordura arteko beren ohiturak.

Ez da soilik hiztunaren bizileku aldatzea, Zumarragak hamarkada gutxitan bere biztanleria ia hirukoiztu egin zuen honek urbanistikoki izan zuen eraginarekin. Zumarragan auzo berriak eraiki ziren gehienez etorkinek bete zituztenak. Baserrietatik edo inguruko herrietatik ere etorriko ziren bakarren batzuk baina gehiengoa, erdaldunak izan ziren. Ondorioz, Zumarragan badira sortu direnetik gazteleraz bizi izan diren auzoak kale neurketaren datuek erakutsiko diguten bezala.

Zumarragako kaleen urbanizatzeko historia ezagutzeko irakurgai dago Antonio Pradaren (1989): "Zumarragako kaleen historia". Bertan ederki azaltzen da Zumarraga herrigunearen bilakaera:

(...)jakin beharrekoa da pasatako mendea (XIX) oso aurrera joan arte ez zegoela Zumarragako udalerrian benetako kalerik, biztanlego guztia hartzen zuten 5 auzo baino, bertan biztanle gehienak baserrietan bizi zirelarik. Hauetako batean bazegoen kale itxura zuen zerbait. (...) honexegatik datorkigu "kaletarra" eta "baserritarra" kontraposizioa".

Baseri auzo handi horiek bost ziren: EITZAGA (kale baten hasiera osatzen zuen), SORAIZ (Antzina eta Eitzagatik Ezkiorako inguruan kokatua), ARANBURU (gaur egun San Kristobal inguruan dauden baserriak) LETURIA (Aranburutik Azkoitira) eta ELGARRESTA (ospitaletik Legazpirantz).

1871an, auzoez gain baziren kale batzuk:

- Geltokietako kalea (gaurko geltoki ingurua)
- Legazpi kalea (gaurko Secundino Esnaola)
- Enparantza berria (gaurko Euskadi enparantza)
- Kale berria (gaurko Legazpi eta Soraluze kalea)
- Zubiaurre kalea (gaurko Kalebarren)
- Piedad kalea
- Enparantza zaharra (gaurko Nafarroa Enparantza)
- Elizkale.

XIX. mende bukaerakoa da Artiz auzoa, eta XX. hasieran agertzen zaigu geltokitik herrirako kale berria Geltokiko kalea. Ordutik 1930 arte ez omen zen gehiago urbanizatu Antonio Pradaren lanaren arabera.

50eko hamarkada izugarria izan zen: 1950ean San Gregorio, San Isidro eta Avenida Antigua kale kategoriarekin agertzen dira. 1955ean daude Bidezarri buruzko lehen aipu idatziak. 1957koak dira Ciudad Jardín, Etxeberri eta Legazpi auzuneak. Ondoren etorri ziren Urola eta Padre Urdaneta. 1960an gaur egungo Iparragirre (Avenida del Generalísimo orduan), Jai-alai (orduko Mercado) eta Leturiatarren plaza (Desviacion de la calle general izenez) aipatzen dira. 1962an Iñigo de Loyola eta Islas Filipinas. 63 hasierakoak dira

halaber GARICANO GOÑI auzoko lehen etxeak eta 1964koak Esteban Orbegozoakoak. Ondorengoak dira Parque Busca Sagastizabal, Avenida Euskalerría, Antonino Oraa, Okendo. 1973koak Churruca eta Elcano kaleak. Atzetik etorri ziren 1982an Jose Migel Barandiaran eta 1987an Elgarresta-mendi auzoa.


Urbanistikoki Zumarraga kale bakarreko herri izatetik (Zubiaurretik Eitzagara zihoana) XIX mendearen azken herenean trenbideen etorrerarekin geltoki aldera zabaltzen da (egungo Soraluze, Legazpi eta Secundino Esnaola kaleetatik). 50eko hamarkadatik aurrera hasten da herrigunea osatzen lanera etorri diren etorkinekin. Ez litzateke gehiegi esatea Zumarragaren herrigunea etorkinek osatu zutela herrigunearen hastapenetik.

Beraz, Zumarragako biztanlera urte gutxitan (1950etik 1970era kasu) hirukoiztu ere egin zen. Etorkinen kopuru handiena penintsulatik etorri zen eta ordurako jada Zumarragak bazituen erdalduntzen, hau da mintzaldatzen, izateko zentzuak. Are gehiago, kontuan hartzekoa litzateke aipaturiko urte bitarte horretan euskararen ofizialtasun eza. Ondorioz ez dirudi harritzeko etorkin samalda horretan bertako euskaldunak ere erdarara jauzi egitea.

Ez litzateke txarra orduko zumarragar euskaldun baten larruan jartzea euskaraz egitea zein zaila izango zen ulertzeko. Honela jarraitzen du Mikel Zalbidek:

Erdara horrek, hasieran kalera etorritako horientzat arrotza den gaztelania edo frantses horrek, eskolan eta kalean ez ezik etxean ere gero eta leku zabalagoa irabazi ohi du, haurren eta gazte-jendearen (hots, seme-alaben) artean bereziki.

Hala badira Zumarragan adin bateko anai-arrebak gurasoekin euskaraz egin arren euren artean gaztelera hitz egiten dutenak.



3.1.2.3. Dislokazio soziala: giza arteko eten-urratzea

Etorri ziren etorkinei dagokionez Mikel Zalbidetik dio:

Bistan da, ordea, azken 125 urtean guregana iritsi izan den etorkin-uholde nagusia, espainiar jatorrikoa, aski dibertsifikatua izan dela sozialki: eskulangile arrunt ugarien ondoan hor zeuden Correoseko edo Renfeko langile soilak, irakasleak, erdi- eta goi-mailako funtzionarioak eta profesio liberaletako teknikoak ere.

Esteban Orbegozoko lantegira lan egitera euskaldunak ere etorri ziren nire aita kasu. Gabariatik etorri zen, baserriatik. Aitona-amona nekazariak euren semeak “fabrikara” (alabak neskame) joateko gonbitea egiten zieten. Nire osabari inoiz entzun diot esaten “orain dela 50 urte aitona-amonak ikusten zuten baserriatik ez zegoela etorkizunik”. Honekin lotu daiteke Mikelek dioena:

(...) tipifikazio sozial hori gertatzen denean, hizkuntza ahula bere etnokultura ahul- minorizatu horren ikur-sinbolo bihurtzen da. Hitz potolo horiekin, berriz, zera esan nahi dugu: kultura marjinal horri ikusten (egozten) zaizkion defektuak ikusten zaizkiola hizkuntzari berari ere.

Beraz, Ameriketako Estatu Batuetara joan ziren euskal etorkinak bezala²², hobe erdara lehenbailehen ikasi.

Erantzuna, euskaldun gehientzat, begien bistakoa da: erdaraz (ondo) egiten ikasi, eta kitto. Bizian aurrera egin nahi duten euskaldunek, goragoko gizarte-mailetara iritsi nahi dutenek, erdal itsasoan igeri egiten ikasi behar dute. Horretan ez dago salbuespenik. Are gehiago: beraiek izango dira lehenengoak saiatzen, beraien seme-alabek alde horretatik inolako eragozpenik izan ez dezaten (hots, erdaraz behar bezala jakin gabe gera ez daitezen).

Ez da harritzekoa: “erderaz ondo jakin behar duela euskaldunak, bizian aurrera (gizarte mailan gora) egin nahi badu. Dilema latza ere sortzen du horrek “euskara jakitea ondo dago, baina gaztelera jakin egin behar da zerbait nahi bada”. Ni ere honelakoak entzundakoa naiz gure etxe euskaldunean. Beraz, zer egin? Fishmanek Mikel Zalbiderekin ahotik ematen digu erantzuna

Hori guztia kontuan izanik, bere bizi osoan behin eta berriro errepikatu izan duen errezeta eskaintzen du Fishmanek, goian esandako dilema hori dela-eta: *pro- RLSers must become adapt at **combinatorial** rather than at mutually exclusive solutions*. Bat ala beste aukeratu ordez bat eta beste neurri egokian uztartzea dela kontua. Soluzioa ez dagoela, alegia, punta-mutur batean (“baserrian gelditu, behiak zaintzen, fabrika edo beste lantegi modernorik ukitu ere gabe, eta beraz pobre arlote bizi”) edo bestean (“kalera jaitsi, erdal itsaso zabalean murgil egin eta han aurreratu, ahal den neurrian noski, euskara zein euskal bizimodu-arrasto

²² Ikus Garikano, Asun 2009: “Far Westeko Euskal Herria” Pamiela.

guztiak lehenbailehen abandonatuz”). Soluzioa ez dela ez bata eta ez bestea, jatorrian etnokulturala eta modernotasun ekonotekniko zein soziokulturala egoki konbinatzen asmatzea baizik

Euskaldunei ez ezik erdaldunei ere ematen dizkie gomendioak:

Bi eratara lagun diezaguke erdal munduak, Fishmanen esanean: batetik, euskararen kontra ez daudela esaten badute behin eta berriro, eman diezaiegun nahi adina aukera, behar den errespetuz eta begirunez, beren ongina hori praktikara eraman ahal izan dezaten; bestetik, bihur dezagun euskarazko jarduna irabazpide, eta baietz erdal mundu hori ere, modu batera edo bestera, euskalgintzaren gurpilera hurbildu.

Ez dakit behar adina onartu zaien erdaldun askori egin duten ahalegina euskara ikasteko, ez eta hainbat eta hainbat erdal gurasori euren seme-alabak euskarazko ereduera eramateagatik. Are gehiago, Urretxu eta Zumarragaren kasuan hezkuntza arautuko Lehen eta Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten 4 ikastetxeetan D eredu dago soilik eta hala ere guraso elebakar erdaldunen aldetik ez dago halako arazorik²³.

Dena den, gurasoek oro har begi onez ikusiko dute euren seme-alabek euskara ikastea baldin eta horretatik etekin aterako badute. Guraso gehienek badakite Euskal Autonomi Erkidegoan behinik behin, administrazio publikoan lan egiteko laguntzen duela. Alde honetatik administrazioek badute zer esana.

Saiatu beharko genuke, ordea, hori dena kontuan hartuz gure irtenbide itxurazkoak, arazoizkoak, aurrera atera litezkeen modukoak atontzen. Espero izan dezakegun mundu hoberena, aukera “posible”-en artean hoberena, euskara-erdarak present izango diren bat baldin bada (eta horretan ez du Fishmanek duda-muda handirik: *“the best of all possible worlds” is an ethnolinguisticallly syncretistic one*), hortik atera ditzagun kontuak eta horren arabera egin ditzagun euskara indarberitzeko gure plan guztiak.

Gehiago ere esaten du:

Ahaztu dezagun hortaz euskara hutsezko Euskal Herriaren egitasmoa, hain bihotzean iltzaturik daramaguna, eta zentra gaitezen euskaldunen luze-zabaleko elebitasun egonkorra garantiza dezakeen marko soziolinguistiko egokiena, “ongien egokitzen zaigun trajea”, bilatzen eta aplikatzen.

Horretarako Fishmanek diglosiaren kontzeptura joko du, baina ez edozein erataria:

diglosi modu bat, azken finean: euskara-erdaren konpartimentazioa, luze-zabaleko funtzio-banaketa egonkorra garantizatuko duena, bilatu eta hezur- mamitu behar omen dugu euskaldunok eta erdaldunok. (...)

²³ Honekin loturik Urretxu Zumarragako Udal Euskaltegitik eskaintzen zaizkie guraso erdaldunei euren seme alaben ikasketa prozesua jarraitzeko ikastaroa.

Erdarari eta erdaldunei beldurrik, are gutxiago gorrotorik, izango ez dien euskaldun-jendea sortu behar dugula; erdaldunekin lasai asko erdaraz egingo duena baina, errotik euskalmaitea delarik, buruz ondo samar jantzia eta kulturgintzan saiatua (...) euskaldunekin euskaraz jardungo duen euskaldun-jendea ugaritu eta sendotu behar dugula.

Neu ere bat nator: horixe dela Zumarragan une honetan bila dezakegun euskararentzako egoerarik onena.

3.1.2.4. Dislokazio kulturala

Unamunok idatzia 1921ean:

“La cultura vasca, lo que se llama cultura, se ha hecho o en español o en francés. En español escribió sus cartas y sus ejercicios Iñigo de Loyola, el fundador de la Compañía de Jesús, y en francés pensaba y escribía el abate de Saint-Cyran, fundador de Port-Royal, fortaleza del jansenismo.

(...) En vascuence no se puede pensar con universalidad. Y el pueblo vasco, cuando se eleva a la universalidad, lo hace en español o en francés. Hasta aquellos de nuestros paisanos que se dedican a relinchar contra España, a la que no conocen, tienen que hacerlo en español. Y algunos de ellos no conocen otra lengua. Lo que no quiere decir que lo conozcan bien.

Los autores del Informe (...) saben de sobra que no se podría explicar en vascuence ni química, ni física, ni psicología, ni... ciencia alguna. Saben de sobra que el vocabulario religioso o teológico del vascuence es de origen latino.

(...) En la lengua en que escribió Iñigo de Loyola su carta a los padres y hermanos de la Compañía de Jesús de Portugal; en la lengua con que Legazpi conquistó Filipinas; en la lengua con que Garay e Irala colonizaron la Argentina y el Paraguay, en la lengua en que Ercilla cantó La Araucana; la lengua en que han sido pensadas y escritas las leyes todas, antiguas y modernas, de las Provincias Vascongadas y Navarra, el Fuero del Señorío de Vizcaya, las Ordenanzas de Bilbao, célebres en la historia del derecho mercantil; la lengua en que... ¿a qué seguir? El mismo Sabino de Arana, el fundador del bizkaitarrismo, pensaba y sentía sus quimeras en español – de Albia-, que era su lengua natural, y que ha sido y es la lengua de la civilización vasca (Unamuno 1921)

Azken 30 urte inguruan, bereziki hezkuntzaren bidetik eman den euskalduntze prozesuaren ondorioz, ez nuke esango Zumarragako herritarrek euskara hizkuntza ez-gaitzat ikusten dutenik Unamunok aipatzen dituen eginbeharretarako. Dena den interesgarria litzateke gazteen pertzepzioa ezagutzea euskararen inguruan, agian, euretako askok hizkuntza atzerakoi edo ez modernotzat har dezaketenen susmoa izan baitaiteke. Kontuan hartzekoa

da komunikazioan izan den aldaketa ez hainbeste urtetan eta baliteke egungo gazteen erreferentziak hemendik milaka kilometrotara izatea. Hauxe dio Mikel Zalbidek honen inguruan:

Modernizazioak eta demokratizazioak ahuldu (zenbaitetan birrindu) egiten dituzte lekuan lekuko kultur diferentziak, eta guztiok komunikabide berberen, alderdi politiko berberen, hezkuntza-programa bateratuen eta publizitate-instantzia berberen jirabiran jartzen gaituzte²⁴

Globalizazioari begira dagoen mundu honetan, ez da harritzekoa

(...)euskaltasun-ezaugarriak alde batera uzten joateko (poliki-poliki, ia konturatu ere gabe eta beraz inork behartu gaituela ere nekez esan dezakegularik

Arlo kulturalaren ikuspegitik ere Fishmanen ikuspegia argia da:

Ez dela egia helburu biak ezkondu ezinak direnik. Posible dela modernizazioa eta demokratizazioa alde batetik, eta agregatu etnokultural txikiak (gurean: euskara eta euskal kultura) bestetik, uztartzea eta elkarren eskutik eramatea. Lan zaila dela, hori bai.

Fishmanentzat, erantzunik hoberena sinkretismo soziokulturalaren bidezkoa da: erdal mundua ere onartu, gure (eta gure seme-alaben) bizialdi osoan hortxe izango dugula jakin eta berari leku egiten ikasi; baina euskal munduari bere osoan, litekeen erarik beteanean, eutsiz: gure biziaren zati garrantzitsuak (gizakiaren *Gemeinschaft*-giroa sortzen dutenak eta euskarazko arnasgune trinkoetan bizi izaten lagun diezaguketenak, bereziki) euskaraz bizi, euskaraz sortu eta seme-alabei euskaraz transmititu. Euskal kulturari edertasun-kutsua erantsi.

Dena den, kale neurketaren datuen arabera gazteen artean ematen den jaitsiera ikusirik, interesgarria izan liteke gazteek (14-25 urte bitartekoak) euskararen inguruan duten iritzia ezagutzea. Nola pertzibitzen dute euskara? Zergatik? Hartara ahal den neurria “euskal kulturuari edertasun-kutsua” nola erantsi jakiteko.

3.1.3. Zer da RLS edo Reversing Language Shift? HINBEren aurkezpena

Zalbidek RLSren euskal ordaintza HINBE hartzen du, hau da, Hizkuntza INdarBErritzea. Honela definitzen duelarik:

Gero eta larriago dabilen hizkuntza ahulak hiztun gehiago izan ditzala, eta hiztun horiek gero eta jardungune, harreman-sare eta situazio ugariagoetan egin dezatela beren hizkuntza ahul horretan: hori da RLSren jomuga, neurri on batean.

²⁴ Honen inguruan gehiago ezagutzeko: A. Barreña eta P. Juaristi: “Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan” (HIZNET 1.1. 2011)

Urretxu Zumarragan euskararen ezagutza azken urteetan bermatzen ari da ikastetxeen lanaren bidez. Urretxu-Zumarragako ikastetxeetan LH eta DBH D ereduan eskaintzen dira²⁵. Beraz, jardunguneak, harreman-sareak eta situazio ugariak bilatzea izango da erronka euren ezagutza balia dezaten.

Askotan imaginatu izan dut neure burua gurasoek ikastolara bidali beharrean ingeles eskola batera bidali izan banindute. Ziurrenik eskola orduan ingelesez arituko nintzen neu ere, baina atsedendian edo eskolatik atera bezain pronto erosoan, librean komunikatzen nintzen horretan egingo nukeelakoan nago. Horixe da Urretxu eta Zumarragan dugun erronka nagusia nire ustez, eskoletan euskararen ezagutza eta erabilera (gehiago-gutxiago) bermatua dugu, baina eskolaz kanpoko jarduera gehienak aldiz ez.

Mikel Zalbideren azalpenetara itzuliz, ondoren HINBE zertan den “betiko kontua” eta zertan “berria” zehazten du:

3.1.3.1. Zertan da RLS betiko kontua?

“Eutsi goiari”, edo dagoena mantentzea.

Adarretatik galtzea baino enbor eta sustraietara jotzeko gomendatzen du Fishmanek.

Intimacy, family, community, identity and affiliation are the essences of ethnocultural creativity and continuity (RLS, 5). It is identity, rather than power, and Gemeinschaft (intimate community) rather than Gesellschaft (impersonal society), that Xish must fundamentally and studiously pursue at the outset (RLS,6). Gurera etorri: euskarazko etxea eta lagunartea, herria eta bizimodua direla, lehenik eta behin, euskalgintzaren eta herri-izatearen muin-muinean daudenak.

Dena den, gure asmoa udal mailako hizkuntza politika eraginkorragoa burutzea da. Esan nahi da, zaila (edo zailagoa) zaigu euskarazko etxeetan eta lagunarteetan sartzea. Aldiz egingarriagoa litzateke eskolaz kanpoko jarduera horietan euskararen erabilera bultzatzea, hartara lagunarte euskaldunak susta daitezkeelarik.

“Euskaldun izango bagara, euskarari eutsi behar diogu”

Puntu honetan ere gomendio garrantzitsua ematen digu Mikelek Fishmanen ahotik:

Bere buruari bizi-iraupena opa dion hiztun-herri edo soziokulturazko kolektibitate orok autorregulazio-ahalmen bat (era batekoa edo bestekoa, handiagoa edo txikiagoa, baina neurri batekoa nolnahi ere) beharko du eskueran.

²⁵ Haur etorkinentzako izaten dira egokitze ikastaroak ikastetxeetan eta hauez gaina bi udalen elkarlanarekin etorkinentzako errefortzu saioak eskaintzen dira eskola orduz kanpo era ludiko batean.

Zumarragan ere dugun indarra dugu eta dugunarekin lehentasunak markatuz eta indarrak ondo neurtuz lan egin behar dugu. Bide horretatik ezin ahantz ditzakegu elkarlanak. Zumarragara aplikatu gabe adibide hauxe eskaintzen du Mikelek:

Euskaltzaleak apaizari: “eutsi egiok euskarari pulpitan eta eliz esparruan, jendea mintzaldatzen ez den artean kristau-fedea ere indartsuago egongo duk-eta”. Apaizak euskaltzaleari: “eutsi egiok kristau-fedeari, bere zera guztiekin ere eliza bezalako aterpe instituzionalik ez duk euskararentzat erraz aurkituko-eta”.

Norekin komeniko litzaioke euskararen indarberritzeari elkartzea bien helburuak aurrera ateratzeko Zumarragan? Fishmanek berak dugun indarra euskararen erabilera bermatzera bideratzeko eskatuko liguke. Alde horretatik arnagusneekin elkarlana burutzeak badu zentzua. Zeintzuk dira orain arte ikusi dugunaren arabera arnagune horiek? Orain artean transmisioan mintzaldatzerik eman ez den eremua Urretxu-Zumarragan landa eremua da, hau da, baserrietan. Horretaz gain bi udalerrietako lau ikastetxeetan²⁶. Bi eremu horiekin elkarlana oso interesgarria izan daiteke eta elkarlan honetan udalek izan dezakete koordinatze lana.

RLSzaleen betiko negarra: “ahal bagenu, gure esku balego, halakoren pareko bagina!”

Facundo Cabral kantautore argentinarraren amari, bera txikia zela hala esan omen zion mediku batek: “Zure seme honek (Facundok) ez du ia neuronarik eta ezin izango du ezer ganorazkoa egin bizitzan”. Facundoren amak, harriturik hala erantzun zion: “Zer demontre da neurona ba? Zu ez arduratu, Facundo, duzun apur horrekin ahalik eta etekinik onena ateratzen saiatuko gara”.

Garenak gara eta ditugun baliabideak ditugu. Ditugun baliabide horiek ahalik eta ondoen baliatzea izan behar dugu erronka. Horretarako Zalbidek:

Kontuz ibiltzeko eskatzen digu Fishmanek: hizkuntza indarberritzeko orduan lekuan lekuko egoera aztertzeko zehatz-mehatz eta, hori egindakoa, kasuan kasuko irtenbideak planteatzeko

3.1.3.2. Zertan da HINBE hori “berria”, aurreko konstruktua ez bezalakoa?

Hizkuntzaren soziologia **soziologia** da (ez hizkuntzalaritza), behi-esnea **esnea** den bezala (ez behia).

HINBE hizkuntzalaritzari baino soziologiari lotuago dago. Horrexegatik adituen eta arituen lanak ezagutzeko beharra.

Gomendioetara itzuliz, lehentasunak ondo bereizteko eskatzen digu Fishmanek:

²⁶ Urola Garaiko Lanbide Eskolan (UGLE) batxilergoa eta lanbide heziketa eskaintzen dira. Uribarrin sartua dagoen arren, eskola honen errealitatea beste bat da.

Odolusten ari denari torniketean ezarri behar zaiola ordea, lehenbailehen eta ez hamaiketako ederra eskaini: hori dio Fishmanek.

Alde horretatik soziologo estatubatuarrak corpus plangintzen lehentasuna (hizkuntzen bateratzea, euskara batua sortzeak, terminologia berria...) eztabaidan jartzen du hizkuntza indarberritu nahi denetan; are gehiago idatziari baino garrantzia handiagoa emango dio ahozko ekoizpenari.

Zorionez Urretxu-Zumarragan bada lanik korpusaren inguruan Xabier Lasak, Zintzo Mintzo euskaltzale elkarteak proposaturik buruturiko "Urretxu-Zumarragako euskara"²⁷. Honez gaina ahozkotasanari loturik Zumarragako Udalak hitzarmena sinatu du Badihardugu euskara elkartearekin Zumarragako aitona-amonen testigantzak biltzeko euskarri digitalean aukera eskainiz, ikastetxeetan ondorengo lanketetarako.

Beraz, korpusa izan badugu, orain korpus horri erabilera emateko unea litzateke. Kontuan hartzeko ideiak bederen.

"Neurriko trajea" da HINBE, ez "berezko" jomuga bakarra duen formulazioa.

Markatu beharreko helburuak egoki neurtzeko eskatzen digu:

Helburua Marten jartzeagatik ez gabela urrutiago iritsiko gure abionetarekin. Bere neurriko (bere irizpideko) itinerarioak markatu behar ditugula, etsipen hutseko zurrunbiloan sartu eta guztion buruak ito nahi ez baditugu.

Beraz, gure herrien errealitatera egokien tolesten den Hizkuntz Indarberritzeko plana diseinatu behar dugu horretarako ahalik eta diagnostiko zehatzena eginaz. Horretan gabiltza.

HINBE saioa, balio unibertsal positibo batean txertatzea.

Hankak lurrean jarri nahi dizkigu Zalbidek:

Soziokultura handien eta indartsuen aldeko apustua egin nahi dutenek ez daukate, normalean, buru-kantsantzio handirik hartu beharrik. Berez bezala doaz urak beren errotara. Ez daukate justifikatu beharrik zergatik erdal bide zabala aukeratzen duten, eta ez zaie iruditzen ideologiarekin loturiko ezertan ari direnik gehienei. Hala da, eta kitto. Euskal bidexidorrari heltzen dionak, aldiz, argi izan beharko du hasieratik bide malkarrean gora jo beharko duela. Nekea dela bide hori eta, askorentzat, konprenitzen zaila.

Ondorioz:

²⁷ Lasa, Xabier (2003): "Urretxu eta Zumarragako euskara", Zintzo Mintzo euskaltzale elkarteak.

Arrisku bizia daukagu, halakoetan, gure jarduera guztia ideologia politiko itxi, atzerakoi, berez kaltegarri baten ondorioa delako susmoa zabaltzeko edo konfirmatzeko.

Fishmanek zera dio, funtsaren funtsean: hizkuntza eta hiztun-herri txiki, ahulen alde ari garenok ez garela geure zilborrari begira ari, ondotoz zabalagoko filosofia baten alde dihardugula baizik. *Reversing language shift deals with a “good problem” because it is itself a potential contribution to overcoming some of the endemic sociocultural dislocation of modernity.* (...) Ondo egiten bada (hortxe dago gakoa), euskara eta euskal kultura indartzeaz gainera gizarte sanoagoa, orekatuagoa, egungo gizarte-molde berriak berekin dakartzan arrisku bati baino gehiagori konponbide hobea aurkituko diona, osatuko dugu HINBEren eskutik.

Egoki azalduz gero, ez dirudi alderdi politikorik egongo denik azken hori nahi ez duenik. Gure ingurune honetan oso kontuan hartzeko pentsakera.

3.1.4. Nola egiten da HINBE? Kontsiderazio nagusiak

Kontuan hartu beharrekoak:

(...) bizitza modernoak ezinezko bihurtu du edozein kulturarentzat erabat burujabe izatea

Hemen dator ziurrenik Fishmanen proposamenetik harritu gaitzakeena: diglosiaren alde agertzen da.

HINBEk behar duena, aurrera aterako bada, ez da ordea nolana hiko elebitasuna, diglosiazko elebitasun egonkorra baizik.

Hauexek ditu, Fishmanen ustez diglosiak ezaugarri:

Diglosiak, (...) hiru osagai ditu funtsezko, ezer argirik aterako badugu: **talde-izaera** (ez norbanakoa), **iraupen luzea** (hots, gutxienez hiru belaunalditara iristen den egonkortasuna) eta, nola ez, **espazio soziofuntzionalaren konpartimentazioa**.

Diglosia bai, baina zentzu honetan:

Berak planteatzen duena (elebitasun diglosiaduna alegia) beste hau da: euskaldunok euskaldunokin euskaraz jardutea funtzio jakinetan (ahalik eta gehienetan), nahiz eta erdaldunekin oro har (bai eta euskaldunekin ere beste zenbait funtziotan, hala suertatzen denean) erdaraz jardun.

Gaur egun pentsamendu horrek euskaltzale askoren pentsaerarekin tupust egin dezake, baina ez al genuke nahi Zumarragako eremu edo ekitaldi batzuk euskaraz funtzionatzea erdaldunei inongo arazorik suposatu gabe? Neurri

batean hauxe lortzen ari da: haurrei bereziki eta gazteei zuzenduriko kultur ekintza gehienak euskaraz izaten dira Udalen kultur egitarauari erreparatzen badiegu. Beste zein eremu izan daiteke estrategikoa? Aurreraxeago, gure proposamenean zehazten saiatuko gara.

Mikel Zalbidetik gehiago ere badio:

(...) Zaitasunak zailtasun gure gizarteak, bihar edo etzi, aurrez aurre heldu beharko duen auzigaia da hizkuntza bien elkar-hartzearen kontu horri, nolana ere. Bitartean, beldur naiz euskara dela galtzaile irteten ari dena

Praktikan ere pentsakera aldaketa dakar euskalgintzara:

(...) konpartimentatu eta hizkuntza bien arteko egonkortasuna lortzea baizik. Klabea ez da parekidetasuna, konpartimentazio egonkorra baizik.

Hau da, ederra izango litzatekeela Zumarragan ospatzen de FERIA de Abril euskaraz ere izatea, baina hori baino garrantzitsuagoa dela Gabonetan baserri kantuan gabiltzanean euskaraz egitea. Edo ikastetxeei zuzenduriko sari-banaketa bat euskaraz izatea..

Plangintza orok bezala, hiru atal ditu HINBEK

Hiru atal nagusi bereizten ditu:

1. Estrategia: horretan dakien jendeak (ez, beraz, edonork) diagnostiko zehatza egitea, hemen eta orain, eta ditugun baliabide jakin hauekin, hizkuntzaren belaunetara belaunetara jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea.
2. Taktika: funtzio horiek indartzeko proiektu bereziak antolatu eta hezurramitzea.
3. Ebaluazioa: Kontuak ateratzea: saiatzeak bakarrik ez du balio. Zer ondo atera den, zer erdizka eta zer gaizki, argi eta garbi bereizi behar dugu. Emaitza diferente horien zergatikoa eta zenbaterainokoa ere esplikatzen saiatu behar dugu.

Horretan gabiltza geu ere: ahalik eta diagnostiko zehatzena egiten ondoren ebaluatu daitezkeen proiektua proposatzeko. Horretarako Mikel Zalbidetik dion bezala lehenik “zenbateraino gauden gaixo” neurtu eta ondoren “sendabideak eskaini”.

3.1.5. Diagnostika: zertatik, eta zenbateraino, gaude gaixo?

Mikel Zalbidetaren azalpenari jarraituz, zer dakigu gaixotasunari buruz?

Badakigu, bestalde RLSk edo HINBEk sendatu nahi duen gaitza *LS* (*Language Shift* edo mintzaldatzea) dela. Eta badakigu *LS* hori ere eten-urratze edo dislokazio-mota jakinek sortzen dutela: dislokazio fisikoak, demografikoak, sozialak eta kulturalak. Dislokazio horiek ere ez dira beti, neurritz, hedaturaz eta iraupenez, maila berekoak izaten. Soziokulturazko dislokazio edo eten-urratze horren intentsitate-maila neurtuko digun eskala-modurik sortu al daiteke?

Fishmanek baietz dio, posible dela belaunez belauneko hizkuntza transmisioak zenbateko etena duen neurtzea. Are gehiago, eten hori da neurtu beharrekoa:

Hizkuntzen (Hiztun-herrien, hiztun taldeen edo hizkuntza honetaz diharduten harreman-sareen) galeran belaunaldi batetik hurrengora (eta erabilera esparru bakoitzean bere *tempo*-an) gertatzen den eten-urratze edo dislokazio hori funtsezkoa da, izan ere, hizkuntzen (eta hiztun-herrien) bizian. Ba al da funtsezkoagorik ezer, hiztun-talde batentzat, bere bilakaeran?

Eten-urratze larrienetik arinera honela deskribatzen ditu Fishmanek. Labur bada ere guztiak aipatuko ditugu hemen hobeto kokatze aldera gure udalerrietako egoera:

3.1.5.1. BAEN²⁸ eskalaren 8. maila: *Azken mohikanoarena*

Honela definitzen du:

Egon ez dago hiztun-herririk, ez eta hiztun-taldeko harreman-sarerik ere, bere eguneroko mintzajardun arrunta hizkuntza horretan bideratzen duenik.

Hori irakurrita inortxok ez du pentsatuko Zumarraga egoera honetan aurkitzen denik. Etsienek argudia dezakete Leturiatarren enparantzan edo Eitzan ere “bertakoak” diren zaharrak “joan” ahala, haurrek eskoletan ikasi arren erabateko eten-urratzea dagoela kaleetan

Zer gertatzen da euskara orain dela ehun, berrehun edo hirurehun urte galdurik dagoen herrietako D (zer esanik ez B edo A) ereduko ikasle askoren mintzajardunarekin? Zenbat, eta noiz-nola-norekin-zertarako, egiten dute gazte horiek euskaraz, hamar-hamabi urte euskarazko eskolan pasa ondoren? Zenbaitek uste izan du, hildako hizkuntza bat biziberritzeko hiru gauza behar direla funtsean: hiztegia, gramatika eta... behar adinako aginte-indarra. Irlandako kasuak hori baino zuhurrago izaten erakutsi behar liguke, S. Altuberen lehengo azalpenak gogoan ez bagenitu.

²⁸ “GIDS hori akronimoa da, hitz-hasierako letra-multzoaz osaturiko sigla. Izendapen osoa *Graded Intergenerational Disruption Scale* da. Euskaraz nola esango dugu? Hoberik ezean BAEN erabili izan dut nik, inoiz edo behin: Belaun Arteko Etenaren Neurria.” Mikel Zalbide HIZNET 2011.

Nahiz eta euskararen presentzia aipaturiko periferiako auzoetan baxua izan, nahiz eta Zumarragako auzo asko eta asko nagusiki kanpotarrez osatuak izan, ezin esan dezakegu 8. mailako eten-urratzea mailan gaudenik. Gehiago edo gutxiago baina bada euskaldunen arteko hartuemanik.

3.1.5.2. BAEN eskalaren 7. maila: *Zaharrak joan eta berririk ez*. Hiztun-herririk ez dago, bai ordea hiztun-talde bakarra: herriko zaharrak.

Hauxe ere ez nuke esango Zumarragako kasua ondoen deskribatzen duena denik. Badira beste ingurumari batzuk ziurrenik hobeto egokitzen zaizkienak:

Honelako asko dago, nire ustez, orain bertan ere, Ipar Euskal herrian, Baztan aldean eta beste hainbat lekutan: uste baino eskualde gehiagotan, agian.

Lehenago aipatu dugun bezala, kontuan hartzekoa da Urretxu eta Zumarragako ikastetxeetan badirela urte batzuk soilik D eredua eskaintzen dena eta halaberrez, lehen eta bigarren hezkuntza euskaraz ikasten dute herriko gazteenen artean ezagutza (ia) bermatuz.

Dena den, egokia litzateke herriko jatorrizko euskaldunen testigantzak jaso eta ezagutzea. Are gehiago egunez egun badoan belaunaldi bat dela kontuan hartuz.

Gogoan dut Azkue nola ibili ohi zen zahar-etxez zahar-etxe, Donostian ere bai oker ez banago, hiztun jator haien bila, beren baitan gordetzen zuten altxor haren perla preziatuak hiztegirako (eta *Euskal Erriaren Yakintza*-rako) jasotzen. Oso antzeko lana egin zuen Joxemiel Barandiaranek, ohiko herri-jakintzarekin (bide batez haien mintzaera bizia hitzez hitz jasoz). Zergatik ez gauza bera egin, euskara indarberritzeko? Hori da, funtsean, Fishmanek gomendatzen diguna.

Honen harira berriro ere aipatzekoa da Zumarragako Udalak datozen hiru urteetan Zumarragako aitona-amonen testigantzak jasotzeko egingo duen ahalegina Badihardugu²⁹ euskara elkartearen bidez.

Eskala honetan euskara Biziberritzea jarriko du lehentasun Fishmanek aitona-amonei klaseak eman baino, bilobei hezkuntza elebiduna eskaini. Lehentasuna horri eskaintzeko eta bidean ez distraitzeko errepikatuko du behin eta berriz. Horixe behintzat egun badugu Urretxun eta Zumarragan.

3.1.5.3. BAEN eskalaren 6. maila: *Jaioko dira berriak?* Euskarazko gizarte hurbilari eutsi eta, ahal bada, euskal arnaguneak sortzea

Maila honetan pixka bat geratuko gara. Honela definitzen du 6. eskala

²⁹ Honen adibiderik ikusteko: www.ahotsak.com

Gero eta erdal itsasoan murgilduago bizi dira, (...) Euskarazko gizarte hurbilari eutsi eta, ahal bada, euskal arnaguneak sortzea dute amets, baina kosta egiten zaie halakorik (partez bederen) erdiestea. Aitona-amonek, gurasoek eta seme-alabek (nola- hala, eta guztiek ez bada gehienek edo askok behintzat) euskaraz dakite, baina etxean edo auzoan, lagunarte hurbilean eta kale-bizitzan gero eta sarriago (batez ere gurasoek eta gazteek) erdaraz egiten dute.

Ezagutza datuek hala diote: ia erdia %49,6 elebiduna da, %18,5 ia-elebiduna eta soilik %31,9 omen da erdaldun elebakarra. Datuen arabera, gehienek euskaraz dakite edo ulertzen dute. Erabilerari dagokionez badirudi azken lau urteetan gero eta gehiago entzuten dela erdara batez ere gazteen artean.

Puntu zentrala da hau, guretzat ez ezik Fishmanentzat ere: euskal ontzia hondoratu ala ez, frente honetan jokatzeko da beste inon baino gordinago. Eskolak ondo daude, irrati-telebistak ere bai, berdin egunkari-aldizkariak... Hori dena oso ondo dago. Baina ezer gutxi (harrigarri gutxi) dezakete ekimen horiek guztiek euskara indarberitzeko. Ahulak dira neurri horiek, alde aurretik (edo aldi berean) **etxeko eta auzoko, lagunarteko eta kale-giro hurbileko euskal jarduera zaindu, indartu, babestu, oinarritu eta finkatzen ez bada.**

Helburua ere garbi markatzen du Fishmanek:

- erdarazko mintzajardunetik **euskarazkora pasa behar dugu belaunaldi gaztea, edo oraindik euskaraz ari bada jardunbide horri eutsi behar zaio dio firme.** Eginkizun hori ezin dugu, lasai-lasai, *andereñoen* esku utzi.
- “*demographically concentrated and intergenerationally continuous*” izango den *modus vivendia* bultzatu, indartu eta zabaldu behar dugu belaunaldi gazte horientzat.

Hau da, gazteentzako arnaguneak indartu behar ditugula, euskara lasai erabiltzen den eremuak eskaini. Eskola bada eremu bat baina zenbat da eskolan urtean zeha pasatzen duten denbora? Etxeetara sartzea zaila den arren, kalean auzoan badela zer eginik uste dut.

Horretaz gain, lehentasunak jartzerako orduan argi du Fishmanek:

Hizkuntza oro hitzezko fenomeno dela idatzizko jarduna baino areago, hori azpimarratzen digu 6. dislokazio-mailan gaudenoi. Euskaraz erraz egingo duten hiztunak izateak lehentasun osozko jomuga izan behar duela guretzat. Horretarako, euskaldunek euskaldunekin euskaraz jardun ahal (hainbatetan behar) izango duten arnaguneak babestea, sendotzea eta zabaltzea HINBE osoaren funtsezko eginkizuna dela

Arnagune dira, halaber, eskolaz gain: bertso-eskola, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak, euskarazko irakurle taldea, mintzalagunak, Zumarragako trikitilariak

eta oraintsu herrian sortu berri den Kantujira taldea. Horien arteko koordinazioa eta elkarlana bilatu beharko litzateke.

Azalpenekin jarraituz 6. eskalan gauenontzat bi jardunbide proposatzen ditu:

handik harako harreman-sareak sortu, teknologia berriak lagun, aurrez aurreko harreman-sareak sortzea nekeza edo ezinezkoa denean.

Egun hor ditugu EAEko telebista irratiez gain, tokiko telebistak Urola Telebista euskarazko hainbat saiorekin eta Lurreko Telebista Digitalari esker Goierriko Telebista ere bai euskarazko eskaintzarekin. Irratiei dagokienean EAEko irratiez gain Urretxu Zumarragan bada Kk'in zona proiektu komunikatiboa gazteek sortu eta gazteek bideratzen dutena. Esan behar gazte erabileraren kale neurketako datuak aipaturikoak izan arren, irratsaio gehienak euskaraz burutzen direla. Prentsa idatziari dagokionez, Zintzo Mintzo euskara elkartetik abiatutako Otamotz hilabetekaria eta Otamotz.com atari digitalak ere erreminta erabiliak dira Urretxu Zumarragako euskaldunen artean. Azken urte hauetan, berriz, Goierriko Hitza eta Goierriko Hitza.info atari digitala ere baditugu herriko gertaeren berri eskaintzen digutelarik. Haez gain aipatzekoa litzateke Urretxuko Kaixo udal-aldizkaria edo Zumarraga-Urretxuko Gaztetxeak aldian behin argitaratzen dituenak.

Egun bai Otamotz proiektuak bai Goierritarra herri aldizkaria Goierriko Hedabideak SL enpresak kudeatzen ditu Goierri guztirako –garaia eta beheazango den proiektu komunikatiboa burutzea aztertzen ari direlarik.

Gehiago ere esaten du:

- famili barruko taktikak eta estrategiak eratu, euskarari eusteko eta, ahal den neurrian, euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten kideak euskal gorpilera biltzeko.

Alde honetatik Udaleko politikei dagokionez hanka-motz gabiltzalakoan nago. Udaletik sentsibilizazio kanpainez gain (haur jaioberriei alkateren gutuna, gurasoentzako euskarazko saioak...) ezer gutxi egiten da transmisio hori laguntzeko eta egia esan ez da erraza familietara heltzen udaletatik behinik behin.

Honekin lotuta ezinbestekoa dirudi haurren presentziak duen eragina baliatzea euskararen erabilera handitzeko. Kale neurketaren datuek argi uzten dutenez, haurren presentziak eragin handia du euskararen erabileran (haurren presentziarekin, euskararen erabilera %22; haurren presentziarik gabe %8). Informazio hau ere erabilgarria izan ahal zaigu oso.

Fishmanek eten-urratzeko maila honetan zentratzen ditu bere lanak:

6. mailako dislokazioa konpontzen ez badugu, alferrik-edo ari garela esaten du berak. Maila hori konponbidean jartzen badugu, berriz, okerrena egin dugula.

Beraz, 6. maila honetan kokatuko genuke Urretxu Zumarragako euskararen transmisioaren eten-urratzea. Maila honetan proposamenak egiten saiatuko gara metodologia honen aurkezpenaren amaieran. Gauzak honela, aipa ditzagun labor hurrengo bost mailak.

3.1.5.4. BAEN eskalaren 5. maila : Hiztunak irakurle eta idazle bihurtzea. Euskaldunak alfabetatzea

Badira ordea hiztun-herriak, edo hiztun-taldeak, 6. mailako dislokazio larri hori ez dutenak (goizean jaikitzen direnetik oheratu bitartean osorik edo nagusiki beren hizkuntzan, gurean euskaraz, bizi direnak). Euskaldun horietariko hainbati ez dio ordea inork, ez etxean eta ez eskolan ibili zenean, euskaraz irakurtzen eta idazten erakutsi: hori dute beren "hutsunea".

Zumarragan aipatu baldintzak betetzen dituztenak -egun osoan euskaraz bizi direnak- izatekotan ere landa eremukoak beharko dute eta euskaraz alfabetatu gabeak bada adin batetik gorakoak (30etik gorakoak ziurrenik).

3.1.5.5. BAEN eskalaren 4. maila: Euskal eskola, gure gaitz guztien aspirina

4. mailako erremedioa horixe da: euskaldun gazteok beren ikasketak, batez ere hasiera- eta erdi-mailakoak, euskaraz egitea. Hamasei urte arteko eskola-aldia, obligaziozkoa dugu EAEn eta Nafarroan.

Zorionez Urretxu eta Zumarragan egun ikastetxe guztietan D ereduan irakastean da ikasleen euskararen (eta gazteleraren³⁰) ulermena bermatuz. Dena den ezin dugu ahaztu Zumarragan guraso elebidunen seme-alaben kasuan ere:

Eskolak, D eredukoak barne, gure (berdin du mundu zabaleko beste edozein X-en) seme-alaben erdalduntze-bide ere badira. Ondo baino hobeto dakigun kontua da hori. Isil asko gordetzen duguna ere bai. Ikasleen (ikasle askotxoren) etxea eta auzoa hain (erabat edo nagusiki) erdalduna izanik, oso zaila da ikasle horiek euskal hiztun trebe bihurtzea. Eta, alderantziz, nahi baino errazago gertatzen da etxetik euskaldun edo erdi-euskaldun etorri diren ikasleak beren mintzajardun arruntean nabarmenki erdalduntzea.

Dena den Zumarraga-Urretxun ezin da ukatu -euskararen ekoizpen gaitasun maila alde batera utzita ere- egungo gaztetxo ia denek (18 urtez beherako ia denek) euskara ulertzeko gai direla. Beraz, eremu erdaldunetan ere eskola ari da egiten bere lana, eskolatik kanpo dagoela bene-benetako erronka iruditzen zait niri.

³⁰ Hezkuntza ereduen inguruan gehiago ezagutzeko: M. Zalbide eta S. Izagirre: Hezkuntza- alorreko hizkuntza plangintza (HIZNET 2011 5.3.2)

3.1.5.6. BAEN eskalaren 3. maila: Euskara, jalgi hadi (bertatik bertarako) lanera!

3. eten-urratze mailan aurkituko litzateke lan mundua.

Hiztun-elkarte sendoa, hitzez ez ezik idatziz ere ongi moldatzen dena eta eskola ere (nagusiki bederen) bere hizkuntzan jasoa, baina erdarazko lan-munduan murgildurik bizi dena.

Urola Garaia Udal Elkartetik 2006tik martxan da “merkataritzan euskaraz” plana helburuz Legazpi, Urretxu eta Zumarragako merkatalguneen euskara erabilera handitzea duena. Hasiera batean errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak bateratu zituzten euskararen idatziko presentzia handitze aldera. Ondoren mintzataldeak sortu ziren euskaldunzahar eta euskaldunberriekin, ikastaroak ere eskaintzen zaizkie euskarazko erreminta informatikoak ezagutu ditzaten, kanpaina eta errekonozimendu saioak urtero... 2011n ostalaritzan zentratu dira indarrak eta hauek aisialdian duten garrantzia ikusirik eremu estrategikoa direlakoan nago.

Hortaz, 1. sektorea hau da, nekazaritza eta abeltzaintzan gehiago edo gutxiago baina euskararen eten-urratze handiegirik ez da eman. 3. sektorean Urretxu Zumarragako administrazio publikoek (udalek, ospitale eta anbulatorioak, ertzain-etxeak) gehiago edo gutxiago baina badute euren euskara plana eta merkataritza euskalduntzeko ahalegin bat burutzen ari da Legazpin, Urretxun eta Zumarragan elkarlanean. Gauzak honela, 2. sektorea da euskararen inguruko esku-hartzea (ia) izan ez duen sektorea, baina baita eskualdean langile gehien biltzen dituen ere. Zaila dirudi udaletatik 2. sektorean euskararen erabilerarako plan eraginkorrak burutzea eta agian Mankomunitate mailan landu beharreko ekimena da hau ere, lur idor eta gogorra aurkitu dezakegulako aurrez ia landu gabea.

Baina, lur idorrean nekatu arte ereiten ibiltzea baino interesgarriago jotzen du Fishmanek lan munduan dauden (baldin badira) arnaguneak identifikatzea eta eurekin lan egitea.

Alde horretatik atentzio berezia zor genieke, orain ere, euskaldunen jabetzapeko edo gestiopeko produkzio- eta zerbitzu-enpresei, nagusiki euskaldun-langileez osaturik dauden eta euskaldun-jendea atenditzen dutenei: pentsu- eta ongari-enpresak, basozaintza alorrekoak, nekazari-tresnak saltzen dituztenak, sagardogileak, arrantza- eta kontserba-alorrekoak... Beren mugatuan eta txikian ere, euskal arnaguneak indartu eta zabaltzera datoz horiek guztiak.

3.1.5.7. BAEN eskalaren 2. maila: euskara administrazio-munduan eta komunikabideetan. Ez, halere, goren-mailetan

Udalak berak ere baditu bere betebeharrak

Euskal arnasmuneak atenditzen dituzten administrazio-organoak eta komunikabideak euskaldundu (praktikan: ele bietan jarduteko gaitu) behar dira lehenetsun osoz.(...) Funtzionarioen lan-baldintzak eta eskabideak ezin daitezke etengabeko aitzakia izan, euskaldunen hizkuntz eskubideak etengabe alboratu eta desatenditzeko.

Horretaz gain hizkuntzaren balioa eta prestigioa ere burutu daiteke udalari. Are gehiago udal herriari begira ezinbesteko ardura dute lan horretan horretarako lanpostuen hizkuntz eskakizunen derrigortasun datak ezartzen jarraituz eta 86/97 dekretuak dioena betetze bidean pausoak emanaz udala gai izan dadin herritarrak euskaraz (ere) atenditzeko, beste administrazioekin euskaraz (ere) funtzionatzeko gai izateko eta baita udal barruko funtzionamenduan ere. Horretarako ezinbestekoa da Euskara Teknikarien lana eta politikarien interesa.

3.1.5.8. BAEN eskalaren 1. maila: Euskara presente unibertsitatean eta goimailako lan-postuetan (aurrezki-kutxen, enpresen, agintaritzaren eta komunikabideen erabakimen-esparruetan). Baina independentzia politikoak berez eman dezakeen segurtasun osagarria gabe.

Fishmanek dioen bezala: first is first eta guk ere baditugu aurreragoko lanak eskalaren 1. ertze honen aurretik. Dena den, politiki bada ere ari dira merkaturatzen goi mailako lanak euskaraz burutzeko gaituak diren neska-mutilak. Baita Zumarragan ere.

3.1.6. Laburbilduz: zer ekarri digu fishmanek, bere HINBERekin?

Hauexek dira Joshua Fishman soziologo estatubatuarraren lanetik kontuan hartzen saiatuko garen gomendioak gure proposamena aurkezterakoan:

- a) premia-koenetik abiatzeko: geroak gero.
- b) Etxeko giroan, lagunartean, auzo hurbilean eta eguneroko kale-bizitzan euskaraz jardutea, eta jarduteko aukera zabalak izatea, lehenengo-lehenengo kezka bidea izan behar duela guretzat. Euskal arnasmuneei eustea.
- c) Euskaldunok euskaldunekin euskaraz
- d) Euskaraz bizi diren euskaldunak izan behar ditugu, batez ere, begien aurrean.
- e) Gurasoetatik seme-alabetara, hizkuntza osasuntsu guztiek egin ohi duten moduan, transmititzeko ahalmena
- f) Indarberritzeak galdera honi erantzun behar dio: zenbateraino lagunduko digu hurrengo belaunaldiak euskaraz egin dezan? Ez, eskolan bezala, gutxi-asko ikas dezan eta erdaraz jardun dezan. Bestalde, Saioa

egiten dugunetik handik zenbat denborara agertuko den ondorio hori?
Nola neurtu, konprobatu edo zehaztuko dugu mesedegarritzko
kontribuzio hori?

Behin lan-eremuaren bilakaera pixka bat ezagututa eta metodo bat dugularik
proposamen bat aurkezten saiatuko gara.

4. PLANGINTZA: ZUMARRAGAN EUSKARAREN KALEKO ERABILERA INDARBERRITZEKO PROPOSAMENA

Hastapenean aipatu dugu proposamen honen jatorria 2009an Urretxun eta Zumarragan egindako kale neurketaren emaitzek eragin dutela. Azken finean, azken lau urteetan euskararen erabilera beherakada izan dela adierazten zuten datuek. Kale erabileraren beherakada horri erantzun asmoz Zumarragako udalerraren bilakaera pixka bat ezagutzen saiatu gara eta bien bitartean gure helburuak lortzeko oinarri teorikoak bilatu ditugu horretarako Joshua Fishmanen RLS (edo Mikel Zalbideren euskarazko ordaina den HINBE) teoria oinarri harturik geure herriari begira jarri gara.

Azken finean, zein da konpondu, gainditu edo leundu nahi dugun arazoa? Ahozko euskararen kale erabileran izan den jaitsiera.

Beraz, **gure helburua kalean ahozko euskararen erabilera igotzea izango da**, baina ez edozein eratar. Horretarako J. Fishmanen oinarri teorikoak kontuan hartuko ditugu. Aurreko atalean irakatsiari jarraiki:

- a) premiazkoenetik abiatzeko: gerokoak gero.
- b) Etxeko giroan, lagunartean, auzo hurbilean eta eguneroko kale-bizitzan euskaraz jardutea, eta jarduteko aukera zabalak izatea, lehenengo-lehenengo kezka bidea izan behar duela guretzat. Euskal arnasguneei eustea.
- c) Euskaldunok euskaldunokin euskaraz
- d) Euskaraz bizi diren euskaldunak izan behar ditugu, batez ere, begien aurrean.
- e) Gurasoetatik seme-alabetara, hizkuntza osasuntsu guztiek egin ohi duten moduan, transmititzeko ahalmena
- f) Indarberritzeak galdera honi erantzun behar dio: zenbateraino lagunduko digu hurrengo belaunaldiak euskaraz egin dezan? Ez, eskolan bezala, gutxi-asko ikas dezan eta erdaraz jardun dezan. Bestalde, Saioa egiten dugunetik handik zenbat denborara agertuko den ondorio hori? Nola neurtu, konprobatu edo zehaztuko dugu mesedegarritzko kontribuzio hori?

Bide honetatik, oinarri horiek errespetatzen dituen plangintza proposatzen saiatuko gara. Gure egiterakoan Fishmanek proposatzen duen egitura baliatuko dugu:

1. Estrategia: diagnostiko zehatza egitea, hemen eta orain, eta ditugun baliabide jakin hauekin, hizkuntzaren belaunetaz belaunetara jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea.

2. Taktika: funtzio horiek indartzeko proiektu bereziak antolatu eta hezurmamitzea.

3. Ebaluazioa: Kontuak ateratzea: saiatzeak bakarrik ez du balio. Zer ondo atera den, zer erdizka eta zer gaizki, argi eta garbi bereizi behar dugu. Emaitza diferente horien zergatikoa eta zenbaterainokoa ere esplikatzen saiatu behar dugu.

Beraz, has gaitzen estrategiatik eta fokalizatu dezagun ahalegina: euskaldunengan jarriko dugu begirada, eta euskaldunek euskaldunekin euskaraz hitz egiteko kalean topaguneak behar ditugu. Zeintzuk dira Urretxu eta Zumarragako kaleetako arnasmuneak? Hau da, zeintzuk dira euskara gehien erabiltzen den gunek, adin-tarte, sexu eta eguna? Honen berri badugu ematerik kale neurketari esker.


4.1 Estrategia: “diagnostiko zehatza egitea, hemen eta orain, eta ditugun baliabide jakin hauekin, hizkuntzaren belaunetaz belaunetara jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea”. (M. Zalbide)

4.1.1. Urretxu-Zumarragako kaleetako euskararen ahozko erabileraren indarguneak

Argi badugu Zumarragako Udalaren egoera (oro har) Fishmanek definituriko eten-urratze eskalan 6. maila dela, eta soziologo estatubatuarraren proposamenei jarraiki aintzakotzat hartzen badugu hizkuntza bat indarberritzeko egun hizkuntza hori bizia den eremu horiek indartzea komeni zaigula, zeintzuk dira Zumarragako kaleko arnasmuneak? Edo neurri apalagoan indargune horiek?


Errepara dezagun Soziolinguistika klusterrak emaniko datuei:

- Eremua: Zein da euskara gehien entzuten den eremua?




Erdigunea da zonalderik euskaldunena eta koxkarekin. Urretxuko **Gernika-Iparragirre** ibilbidean entzuten da gehien euskara (lau elkarrizketetatik bat), ondoren Zumarragako erdigunea **Secundino Esnaola eta Legazpi** kaleetan %20 eta atzetik eta diferentziarekin Eitza auzoa ondoren %9,3 eta azkenik Leturiatarren enparantza %4,9arekin.

Bilakaerari erreparatuz ere jaitsierak jaitsiera ordena errespetatzen da:



Beraz, Urretxuko Gernika-Iparragirre ingurua eta Zumarragako Legazpi-Secundino Esnaola kaleak dira bi herrietako euskara gehien entzuten diren kaleak³¹.


- Adinaren arabera: Zein adin taldek erabiltzen du gehien euskara Urretxu eta Zumarragan?



³¹ Bat dator Norteko Ferrokarrilaren etorrerak XIX. mendean eragindako ensantsearekin. Orduan Kale Berria edo Geltokietako kalea bezala ezagutua.

Haurrak dira gehien erabiltzen dutenak ia heren bati (%30) entzun zaiolarik neurketetan, ondoren **helduek** elkarrizketen %17arekin eta jarraian **gazteak** %15eko portzentajearen. Adinekoak dira gutxien erabiltzen dutenak neurketaren arabera %7,9arekin.

Azken urteetako bilakaerari erreparatzen badiogu:



Jaitsiera lineala izan da helduen kasuan izan ezik ia hiru puntu igo delarik azken zortzi urteetan.


Beraz, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Ondoren helduak baina hauen kale erabilera haurren portzentajearen ia erdia da. Gazteak dira hurrengo haurren kopurua erdira jaitsiz. Adinekoei entzuten zaie gutxien euskaraz Urretxu Zumarragan helduen erabilera erdira jaisten delarik.

- Haurren presentzia: nolako eragina du haurren presentziak euskararen erabileran?


Helduen bigarren postu hori (ohikoa gazteak izatea denean) haurren presentziari³² loturik egon daiteke:

³² "Haurrak bai datuak biltzen ditu haurrak presente direla behatu diren elkarrizketa guztiak: helduek edo adinekoek haurrei hitz egiten dietenean, haurrek beraien artean hitz egiten dutenean eta baita haurrak tartean egonik beste adin taldeetako artean ematen diren elkarrizketak ere (adibidez, bi guraso hizketan, seme-alabak ondoan izanik). Aldiz, *haurrik* ez datuak biltzen dituen elkarrizketak, gazte, heldu edo adinekoen artekoak dira, baina haurrak ez daude tartean: ez hitz egiten, baina ezta elkarrizketan ari direnen taldean entzule gisa ere.

Euskarazko erabileraren eta haurren presentziaren artean ematen den lotura horrek adierazten du badirela haurrekin lotutako hainbat baldintza (giroak izan daitezke, edo jarduerak, edo haurrekin lotutako hizkuntzei buruzko irudikapenak...) eragiten dutenak haurrak tartean dauden elkarrizketetan euskarazko erabilera gainerakoetan baino handiagoa izatea.



Haurren presentzia izan ala ez zegoen aldea 2001ean 18,1 puntukoa zen, 2005ean handitu egin zen 22,7 puntura eta 2009an pittin bat jaitsi da diferentzia 21,1 puntukoa delarik.




Euskara gehien neurtu den elkarrizketa mota haur-nagusi erakoa izan da %35,9an neurtu delarik. Ondoren haurren artekoa %30,1ekin. Haren ondoren nagusien arteko elkarrizketak leudeke %16,9arekin haurrak mintzakide ez direlarik. Azpimarratzekoa da, haurren presentziarik ez dagoen elkarrizketen %7,9 izan direla euskaraz neurketaren arabera.

Kale erabileraren neurketak ematen diren testuinguruak aldagai honen neurketarako baldintza egokiak eskaintzen ditu metodologiaren ikuspegitik. Izan ere, herri batean 15 urte bitarteko haurrak gizarte mailan gutxiengo bat badira ere, beren presentzia kalean nabarmena da, eta horri esker, kalean neurtzen diren elkarrizketen proportzio handi batean haurren presentzia egoten da. 2009an Urretxu-Zumarragan eginiko neurketetan, neurtutako 2 elkarrizketatik 1ean, haurren presentzia zegoen." Soziolinguistika Klusterra (2009): *Urretxu-Zumarragako kale neurketa 2009*.

Bilakaerari erreparatzen badiogu erabilera ordena, behinik behin, errespetatzen da:


Erabileraren bilakaera mintzakidea kontuan hartuta (2001-2009)



Beraz, nabarmena da **haurren presentziak** kalean entzuten den euskara duen eragina. Hain zuzen ere **aur-nagusi** elkarrizketak dira Urretxu Zumarragan euskara gehien erabiltzen den kontestua, hiru elkarrizketetatik bat (%36). Ondoren **haurren artekoa** dago (%30) eta hirugarren postuan ia erdira jaitsita gurasoen artekoa haurrak mintzakide ez direla (%16,9).


- Egun eta orduaren arabera: zein da Urretxu-Zumarragan euskara gehien entzuten den egun eta ordua?

Neurketa egunen araberako emaitzak



Larunbat goizak dira euskara gehien entzun den egun eta ordua %22. Honek astero Zumarragako Euskadi Enparantzan burutzen den azokarekin

kointziditzen du. Pentsatzekoa da inguruko baserri eta herrietatik ere hurbiltzen direla larunbat goizetan Zumarragara. Kontuan hartzeko da, azoka izan ez den beste bi neurketetan euskararen erabilera ia %17an kokatu dela.



Bilakaerari erreparatuz badirudi azokak eragin zuzena duela euskararen erabileran Zumarragako kaleetan. Esan beharra dago, halaber, Euskadi enparantza XIX mendearen bigarren erdian eratu zela orduko Kale berriarekin batera eta Zumarragaren erdigunean dagoela.

Beraz, Soziolinguistika Klusterraren kale neurketaren datuei erreparatuz: herrian euskara gehien **erdigunean** entzuten da; astegunei dagokienez, **larunbat goizetan** eta adin taldeen arabera **haurren** artean; **haurren presentzia** pisuzko faktorea da **haur-nagusi** elkarrizketak direlarik euskaraz gehien ematen direnak.

Datu hauek identifikaturik izatea oinarrizkoa izango da Hizkuntz Indarberitze proposamen bat egiteko. Fishmanek dioen bezala euskara gehien erabiltzen diren uneak izan behar ditugu begien aurrean euskararen erabilera indarberrituko duten proposamenak eskaintzerako orduan. Gure herriko kaleetan arnagunerik egon ez badago ere, indargune hauek dira eurengandik hurbilen aurkitzen direnak.

4.1.2. Euskararen kale erabilera handitzeko kontuan hartu beharreko irizpideak:

Dagoneko aipatua ditugu 3. atalean zeintzuk diren BAEN eskalaren 6. mailari Fishmanek egozten dizkion ezaugarri nagusiak: gero eta erdal itsasoan murgilduago egotea; adineko, heldu, gazte eta haur batzuek hizkuntza jakin badakite, baina etxe eta auzoan gero eta sarriago erabiltzen da beste hizkuntza. 2005etik 2009rako datuak konparatzeak hala erakusten dute.

Maila honetan gauden hiztun komunitateak arnaguneak sortzea dugula amets adierazten du Mikel Zalbidek. Alde horretatik lehen aipatu bezala argi ditu gauzak Fishmanek, hemen Mikel Zalbideren ahotik:

Puntu zentrala da hau, guretzat ez ezik Fishmanentzat ere: euskal ontzia hondoratu ala ez, fronte honetan jokatzeko beste inon baino gordinago. Eskolak ondo daude, irrati-telebistak ere bai, berdin egunkari-aldizkariak... Hori dena oso ondo dago. Baina ezer gutxi (harrigarri gutxi) dezakete ekimen horiek guztiek euskara indarberritzeko. Ahulak dira neurri horiek, aldez aurretik (edo aldi berean) etxeko eta auzoko, lagunarteko eta kale-giro hurbileko euskal jarduera zaindu, indartu, babestu, oinarritu eta finkatzen ez bada.

Jarduera hauek lirateke landu beharrekoak “etxeko eta auzoko, lagunarteko eta kale-giro hurbileko euskal jarduera zaindu, indartu, babestu, oinarritu” eta finkatu behar genituzkeela diosku Zalbidek. Geure helburua kale erabileran eragitea denez **kale erabilera handitzea helburu izango duten ekintzei emango diegu lehentasuna**, betiere gure helburua gogoan.

Honez gain, Fishmanek ere bere helburuak garbi markatzen ditu:

- erdarazko mintzajardunetik euskarazkora pasa behar dugu belaunaldi gaztea, edo oraindik euskaraz ari bada jardunbide horri eutsi behar zaio dio firme. Eginkizun hori ezin dugu, lasai-lasai, *andereñoen* esku utzi.
- “*demographically concentrated and intergenerationally continuous*” izango den *modus vivendia* bultzatu, indartu eta zabaldu behar dugu belaunaldi gazte horientzat.

Euskarazko topaguneak behar ditugu euskaldunek euren artean euskaraz egin dezaten. Euskaldunak gugana etorri baino geu joan behar dugu euskaldunak kontzentratzen diren gunetara eta bertan eragiten saiatu. Ez soilik ere puntuan batean maiztasun batean oinarrituriko ekintza izan behar du “modus vivendi” bat bultzatzea.

Horretaz gain, lehentasunak jartzerako orduan argi du Fishmanek:

Hizkuntza oro hitzezko fenomeno dela idatzizko jarduna baino areago, hori azpimarratzen digu 6. dislokazio-mailan gaudenoi. Euskaraz erraz egingo duten hiztunak izateak lehentasun osozko jomuga izan behar duela guretzat. Horretarako, euskaldunek euskaldunekin euskaraz jardun ahal (hainbatetan behar) izango duten arnaguneak babestea, sendotzea eta zabaltzea HINBE osoaren funtsezko eginkizuna dela

Landa eremua eta eskolaz gain, arnagune dira elkarteei erreparatu: **bertso-
eskola, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak, euskarazko irakurle taldea,
mintzalagunak, Zumarragako trikitilariak** eta oraintsu herrian sortu berri den **Kantujira** taldea³³. Elkarte horiek kontuan hartuko ditugu eta besterik ere bai baldin bada gure helburuekin bat datorrena.

³³ Ziur nago gehiago ere izango direla. Horretarako Aritz Azpetiak 2009 urtean buruturiko kultur eta kirol elkarten diagnostikora jo daiteke.

Mikel Zalbidek bere azalpenekin jarraituz 6. eskalan gaudenontzat bi jardunbide proposatzen ditu:

handik harako harreman-sareak sortu, teknologia berriak lagun, aurrez aurreko harreman-sareak sortzea nekeza edo ezinezkoa denean.

Oro har esan daiteke saretxoa sorturik badagoela Otamotz eta Otamotz.com atari digitalei esker. Hauxe gain kontuan hartzekoak da Urola Telebista, eta KK'in zona irratia ere. Komunikabide hauek elikatu etab abesteaz gain, erreminta bezala presente edukitzea komeniko litzaiguke, behar direnean baliatzen jakitea oso garrantzizkoa suerta daitekeelako.

Gehiago ere zehazten da 6. maila honetan:

- famili barruko taktikak eta estrategiak eratu, euskarari eusteko eta, ahal den neurrian, euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten kideak euskal gorpilera biltzeko.

Honekin lotuta haurren presentziak duen eragina baliatuz euskararen erabilera handitzeko ekintzak proposatzea zilegi dirudi, betiere kalean, eurak elkartzen diren topaguneetan, haur parkeetan alegia.

Beraz, 6. maila honetan kokatuko genuke Urretxu Zumarragako euskararen transmisioaren eten-urratzea Fishmanen BAEN eskalaren arabera eta maila honetan proposamenak egiten saiatuko gara kale neurketak eskaini dizkigun datuak baliatuz.

4.2 Taktika: “funtzio horiek indartzeko proiektu bereziak antolatu eta hezurmamitzea.” (M. Zalbide)

Jarraian aipatuko ditugun proposamenak egun EBPNren barruan egiten denaren osagarri eta indargarri izatea dute helburu. Hori dela eta II. eranskinean egun udaletik kudeatzen diren ekintzen deskribapen laburra eskaintzen zaizu. Berrito errepikatu nahi nuke: jarraian proposatuko dugunak ez du EBPNa ordezkatzeko helburu. Hizkuntzaren Indarberitzearen ikuspegitik burutu nahi da azterketa ondorengo proposamenak ere bai. Azken finean, ahal den neurrian, egiten ari denaren osagarri eta indargarri izan nahi du.

Ohar honen ondoren, EBPN sailkatzeko egun dauden 10 esparruak³⁴ kontuan harturik bakoitzerako geure proposamena luzatuko ditugu.

1. Familia transmisioa

³⁴ EBPNren inguruan informazio zehatzagoa nahi duenak posible du kontsultatzea: A. Arrieta eta P. Mendizabal: “Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra” (HIZNET 4.2 2011)

Ikusi dugun bezala kale neurketaren arabera, nabarmena da haurren presentziak duen eragina bereziki helduen euskararen erabileran. Baita ere jakin ahal izan dugu kopurua asko jaisten dela gurasoak euren artean ari direnean.

Haurren presentziak duen eragina baliatuz, **helburua haurrak eta gurasoak euskaraz jolasten jartzea izango litzateke**. Ondo pasatzeko dinamiken bidez haurrek haurren artean eta gurasoekin; eta gurasoak euren artean ere euskaraz jolasean jartzea izango litzateke helburu, horretarako topaketak burutuz.

Gorago aipatu bezala kalean bertan buruko lirategiak, haur parkeetan hain zuzen ere. Haur parkeak euskal eremu izaten ahalegindu beharko ginateke.

Ekintza eta aktibitate horiek aurrera eramateko oso garrantzitsua litzateke jolasen antolatzaileentzat helburuak argi izatea eta hizkuntza jarrerak ere bai. Ezinbestekoa litzateke euskara ulertzen ez dutenak deseroso ez sentitzea, esaterako, baina aktibitateak euskaraz burutu beharko lirategi, beraz aktibitateak guztien neurrira egiteko modukoak izan beharko lukete.

Oso positiboa izan daiteke euskaraz ez dakien gurasoarentzat bere haurrekin euskaraz ere jolasteko gai dela erakustea. Oso positiboa izan daiteke haurrearentzat eskolatik kanpo ere bere guraso (edo aitona-amonekin) euskaraz jolastu daitekeela ikustea eta, halaber, oso positiboa izan daiteke euskaraz jakin bai, baina euren artean erderaz mintzo diren gurasoak elkarrekin euskaraz jolasten jartzea.

Hezitzaile horien formaziorako egokia litzateke TELP ikastaroetan irakasten den bezala era asertibo hori lantzea bai jolasetan ba ihaur eta gurasoen arteko hartu-emanetan ere. Jarrera asertibo hori giltza delako euskararen irudiari begira.

Ditugun baliabideak kontuan hartuz, egokia litzateke udaberri-uda garaian asteen behin ordubete edo ordu eta erdiko ekintzak antolatzea haur parkeetan. Haur parkeak txandako pasatuko lirategi egunez egun. Honetarako kale neurketaren erabilera kontuan hartuz erdiguneko parkeei lehentasuna emango genieke: Zelai Arizti eta Secundino Esnaola Zumarragan, eta Belaustegi plaza eta Eire ondokoa Urretxun, esaterako

Jolasez gain euskarazko ikuskizunak ere eskaini daitezke, baina beti ere haur eta helduen euskarazko parte hartzea bilatuko dutenak (pailazoak, magoak...).

Azken finean helburua haurren parkeak arnasgune bihurtzea izango litzateke.

2. Euskalduntzea-prestakuntza

Positiboa litzateke euskaltegiaren presentzia kalean gehiago antzematea.

Presentzia hori handitzeko eta burutzen ari diren lana errekonozitzeko laguntza batzuk eskaini dakizkieke, esaterako:

- Euskarazko kultur ekintzetan deskontuak eskaini. Euskategiko ikasleek txartel bat izan dezakete hartara euskarazko antzezlanetan deskontuz gozatzeko.
- Azokako erosketetarako deskontu bonuak. Deskontu bonu horiek euskaltegiak banatuko lituzke eta ondoren azokako erosketetan baliatu. Udalak erosketa bale horiek dirutan ordaindu beharko lizkioke baserritarrari, eta ahalko balitz, etekinen bat eskaini.

3. Irakaskuntza

Helburuak garbi markatzen ditu Fishmanek:

erdarazko mintzajardunetik euskarazkora pasa behar dugu **belaunaldi gaztea**, edo oraindik euskaraz ari bada jardunbide horri eutsi behar zaiola dio firme. Eginkizun hori ezin dugu, lasai-lasai, *andereñoen* esku utzi.

Kale neurketaren datuak ikusirik gazteen artean (14-25 urte) ematen da euskararen erabileran jaitsierarik handiena, hurrekin alderatuz erabileraren erdia izatera pasatzen delarik. Hau honela izanik ere eskolak arnasmune dira gurean eta osatu eta elikatu beharren gaude, bereziki eskolaz kanpoko jardueretan.

Horretarako urteak dira Urretxu eta Zumarragako udalek elkarlanean dirulaguntzak eskaintzen dizkietela ikastetxeei baldintza batzuk betetzearren³⁵. Indarberritzearen teoriari jarraiki dirulaguntzen oinarrietan egokitzapenak egitea proposatzen dut.

Dirulaguntzen oinarrietan haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzari laguntzea bideraturik dago, baina ez al litzateke hobe, datuak mahai gainean, DBHn (are gehiago, baita batxilergo eta lanbide heziketan) zentratzea laguntza horiek? Adin horietan da euskara erabiltzeari nabarmenki uzten zaion garaia eta hortxe dagoela iruditzen zaigu diruz lagundu beharrekoa.

4. Administrazioa

Halaxe aipatu digu Mikel Zalbidek bere irakurgaietan:

bizibide erosoagoa eta hobeto ordaindutako lanpostuak eskuraiezazkiezu, eta orduan ez dute beren euskara hori desabantaila sozialekin hain erraz uztartuko³⁶.

³⁵ 2011ko oinarriak ezagutzeko ikus III. Eranskina.

³⁶ Mikel Zalbide eta Xavier Erize (2001), "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teorikoa" (HIZNET 2011 1.3. 22. or)

Administrazio publikoak oro har, eta herri administrazioak bere barne, berebiziko eragina du arlo honetan. Jende askok amesten du eurak edo euren seme-alabak lan egonkor eta duin bat izatearekin eta irudi hori ondo betetzen du administrazio publikoak.

Udaletxearen kontratazioetan euskara ezagutza kontuan hartu behar da, baita aldi baterako diren kontratazioetan ere. 1982ko legeak eskumena ematen digu herritarroi euskaraz (ere) zerbitzatuak izateko EAeko lurraldeko administrazio publikoengatik. Horretarako langileriaren euskalduntze prozesuarekin jarraitu behar da. Helburu nagusia alde batetik, udaletxera sartzan diren langile guztiek (finko zein behin-behinekoek) dagokien euskara ezagutza bermaturik izatea behar du. Horretarako, noski, agintarien borondate irmoa behar da.

Bestalde oso baliagarri litzateke alderdi politikoek euskara erabiltzeko konpromisoak hartu eta zehaztea.

Dena den aipatu ditugunak herritarrei zerbitzua eskaintzea helburu duten arren gutxi eragin dezakete kale erabileran. Udalak, dena den, giltza dira baliabideak eta baldintzak jartzerako orduan eta euren borondatea giltza da, adibidez, egun erdiz kirol eta kultur elkarteen beharrei erantzuten lagunduko liekeen teknikari bat kontratatzerako orduan edo parke edo azokan burutuko diren gastuen kostua kubritzeko orduan.

5. Lan mundua

Mikel Zalbideren hitzetara joz:

Alde horretatik atentzio berezia zor genieke, orain ere, euskaldunen jabetzapeko edo gestiopeko produkzio- eta zerbitzu-enpresei, nagusiki euskaldun-langileez osaturik dauden eta euskaldun-jendea atenditzen dutenei: pentsu- eta ongari-enpresak, basozaintza alorrekoak, nekazari-tresnak saltzen dituztenak, sagardogileak, arrantza- eta kontserba-alorrekoak... Beren mugatuan eta txikian ere, euskal arnasguneak indartu eta zabaltzera datoz horiek guztiak.

Hortxe ditugu euskal baserritarrak eta landa mundua, oro har eten-urratze erabatekoa izan ez duen sektore bakarra gure inguruan. Alde horretatik ere oso kontuan hartzekoak dira Zalbideren hitzak.

Euskaltzaleak apaizari: “eutsi egiok euskarari pulpitan eta eliz esparruan, jendea mintzaldatzen ez den artean kristau-fedea ere indartsuago egongo duk-eta”. Apaizak euskaltzaleari: “eutsi egiok kristau-fedeari, bere zera guztiakin ere eliza bezalako aterpe instituzionalik ez duk euskararentzat erraz aurkituko-eta”.

Batetik landa mundua eta bestetik kalea eta euskara, aliantza eta elkarlan interesgarria sor daiteke bi aldeen artean.

Gure ustez alde batetik landa mundua prestigiatu beharko litzateke eta bestetik topaguneak baliatu euskara indartzeko.

Baserri eta landa eremuak prestigiatu:

Baserri eta landa eremuak prestigiatu beharrean daude. Mikel Zalbidetik bere artikuluan aipatzen zuen bezala baserria lehengo ohitura edo eremu atzerakoi bezala hartu izan da eta hartua da batzuentzat. Egun, ordea, bada kontrako diskurtsoa kaletarren artean ere ekologiaren bidetik datorrena: bizitza osasuntsua, ekologia, birziklatzea, naturarekiko errespetua... Bide horretatik baserriak prestigiatu ahal dira eta prestigiatu beharrean gaude. Horretarako, esaterako:

- Eskoletatik bisitak egin daitezke: egun egiten dituzte langintza ezberdinak ezagutzeko.
- Eskoletatik gure aitona-amonei elkarrizketak egin lehengo bizimodua ezagutzeko: honekin lotua aipatzekoa da Badihardugu euskara elkartearen burutzekoa den dokumentazio lana gure herriko aitona-amonekin.
- Baserritarren euskara prestigiatu: ahozkotasanari garrantzia eman, euskararen estandarizate berriaren eman, euskararen historia ezagutarazi... Mundu mailako hizkuntzen egoeraren pertzepzioa hartzeko baliatu daiteke baita hizkuntz ekologia korronea ezagutzeko ere.
- Baserri eremuko ospakizunetan parte hartu: Aginako San Martinak, San Isidroak, Gabon kantak eta Ageda bezperaren baserri...

Larunbat goizetako azoka prestigiatu: kaleko elkargunea prestigiatu

Baserriak eta landa eremuak prestigiatu bai, prestigiatu daitezke, baina gure helburuetarako, hau da, kale erabilera eragiteko kaleko topagunea indartu behar dugu. Eta zein da topagune hori? Bada larunbat goizetako Zumarragako azoka. Urretxu eta Zumarragako erdigunean dugu (herriguneko euskararen kale erabilera altuena duen eremua bera) eta larunbat goizetan gainera, neurketen arabera egun eta gune euskaldunena.

Ez dirudi kasualitatea denik asteroko azoka burutzen den egun eta eremua izatea euskara gehien entzuten dena kale neurketaren arabera. Pixka bat erreparatuz gero, azokara gerturatzen diren asko Zumarraga eta Urretxu eta inguruko herrietatik etortzea (eremu euskaldunagoak oro har) eta hauez gain gure inguruko baserrietako baserritarrak ere hurbiltzen dira euren jaki eta produktu ederrekin. Aldeko adierazle horiek baliatu beharra dago kalean entzuten den euskara indartzeko. Larunbat goizetako azoka arnasmune izateko lan egin behar dugu.

Jarraian proposamen batzuk adibide modura:

- Baserritarren produktuak prestigiatu: elikadura osasuntsuarekin lotu, merkataritza zuzenarekin, nekazaritza ekologikoarekin...
- Euskal baserritarrei euren kartelak euskaraz jartzeko aukera eskaini Euskara Zerbitzuaren laguntzaz.
- Elkarlana eskaini Euskara Zerbitzuetatik baserritarrei kanpaina eta diskurtso bateratua eskainiz: hizkuntzen ekologia eta baserriaren ekologia, hemengo produktuaren balio erantsi eta hemengo hizkuntzaren balio erantsia, txikien aldeko babesa... Baserritarrak eta euskara prestigiatu.
- Baserri eta baserritarrak ezagutzeko ekimenak burutu: ikastetxeetatik, azokara...

Gehiago ere badira: azoka egunetan euskal emanaldiak eskaini. Agenda bat adostu arnagune diren elkarteekin: bertso-eskola, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarte, euskarazko irakurle taldea, mintzalagunak, Zumarragako trikitilariak eta Kantujira taldea... huez gain ekitaldiak antola daitezke, pailazoekin, magoekin... Helburua larunbat goizero euskararekin lotu daitekeen zerbait eskaintzea izango litzateke larunbat goizetan azoka euskal eremu bihurtzeko.

Adibidez, Euskara Elkartek euskararen aldeko kanpainak burutu ditzake; bertso eskolak udaletxeko balkoitik edo postuetan bertan saioak eskaini; mintzalagunek mintzodromoa edo poteoa burutu dezakete (bakarrik edo trikitilariak lagundurik), trikitilariak emanaldiak eskain ditzakete, kantujiranekoek kantuekin azokaren txokoak alaitu... Mikel Zalbidek zioen bezala "euskal kulturari edertasuna erantsiz" ahal den heinean.

Hori osatzeko, interesgarria izan daiteke, azokaren inguruko ostalariekin adostasun batetara iristea euskal kantak, kartelak euskaraz... izateko. Ez da erabat arrotza eurentzat: urtero abenduaren 13arekin Santa Lutziko feria ospatzen da Urretxu eta Zumarragan eta egun horretan bai egun horretan ateratzen dituzte euskarazko bokadiloen oharrak eta euskal musika egun osoan zehar euskal doinuak eskainiz aritzen da. Bada guk bilatu behar duguna, azokaren inguruko tabernari horiek larunbat goiza Santa Lutzi egun baten moduan hartzea da.

Ostalariak trukean, larunbat goizetako plazaren inguruko euskal zirkuituaren parte egin daitezke trikitilariak, bertsolariak, kantujirakoak emanaldia eskaintzen ari direnean.

Bestalde, honez gain, agian aztergarria izan daiteke haurrentzako jolas parke bat antolatzea, haurren presentziak euskararen erabileran duen eragina kontuan hartuta.

6. Aisia

Aisialdiari dagokionez, udaletik burutzen da³⁷, bereziki gazteenei begira urtean zehar izan ohi diren oporraldi garaietan hainbat ekimen euskaraz eta kalean: Gabonetan, Pazko Astean, uztailean Udaleku irekiekin... Hauez gain eta atentzioa haur eta gazteengan ezarriz interesgarria litzateke maiztasun handiagoarekin izan ohi diren eremuak euskaldunak izatea: Nerabeen Zerbitzua, Gaztetxea...

Alde horretatik gakoa izan daiteke ireki berri den Nerabeentzako Zerbitzua edo Gazte Bidean-en lokala. Lokal honetan 12-17 urte bitarteko gazteak biltzen dira euren aisialdia kudeatzeko bi hezitzaileen laguntza dutelarik. Bi hezitzaile hauek estrategikoak dira gazteen erabilerari dagokionez eta bai eurentzat bai estrategikoak diren beste hezitzaile, entrenatzaileentzat ondo legoke euren erantzukizunaren kontzientzia hartzeko TELP moduko saioaren bat antolatzea. Helburua, beti ere, gazteen erabileran eragina zuzena duten eragileen kontzientziarioa izango litzateke. Honez gain, udaletako euskara zerbitzuetan badakigu, garrantzitsua dela Gazte Bidean-eko euskararen erabilerari jarraipena egitea, baita kode aldaketan eragiten duten faktoreak identifikatzea ere. Datu horiek garrantzitsuak dira udaletako nerabeentzako politikak diseinatzerako orduan.

Honez gain oso kontuan hartzekoa da 14-25 urte bitarteko gazteek zertan pasatzen duten eskolaz kanpoko aisialdi hori. Azaleko pertzepzioaren arabera kirolean, ordenagailu aurrean, kalean eta tabernetan pasatzen dutela esatea ez da ikaragarritzko astakeria izango.

Kirolaren eremua hurrengo esparruan landuko dugunez, ordenagailuari erreparatuko diogu. Eremu honi dagokionez konplexuagoa izan daiteke udalen parte-hartzea. Dena den, nerabeei begira, Gazte Bidean nerabeentzako zerbitzuak Twitter sistema erabiltzen du gazteak informatzeaz gai neurekin txateatzeko. Hemen ere hezitzaile eta koordinatzailearen erantzukizuna handia da euskararen idatzizko erabilerari dagokionean.

Kaleari dagokionez, gazte hauek (ia denek) ulertzen dute euskaraz eskolan D ereduan ikasi dutelako edo ikasten ari direlako. Eurek, kalea euskaraz aurkituko balute euskara joko luketela pentsatzekoa da, behinik behin euren intereseko hori euskaraz bada.

Aipatu dugun laugarren eremua ostalaritza da, tabernak bereziki. Gazte asko denbora luzea pasatzen dute bertan bai astegunez bai asteburuetan. Dudarik gabe gazteen erabileran eragin nahi bada, hor ere kontzentratu beharko lirateke indarrak.

Honi loturik Urretxuko Udaletik orain gutxi burutzen dena aipatu behar. Urretxuko Udaletik dirulaguntzak eskaintzen zaizkie euren tabernetan euskarazko emanaldiak eskaintzen dituzten tabernariei. Oker ez banabil kostuaren %75a gehienez ere 300 euroko sabaiarekin. Udaletatik ere ikusi da ostalaritzan eragiteko beharra eta ildo horretatik 2011n izan da diagnostiko eta eskaintza berezi bat jabetxe, kafetegi eta tabernei zuzendua. Eraitza antzu

³⁷ Ikus II. eranskina

samarra izan da, baina dudarik gabe erronka handienetariko bat tabernen munduan dugu.

Ederra izango litzateke tabernariak, musika jartzerako orduan edo albistegia, noizean behin euskal kantak edo euskal albistegiak jartzea aukeratzea. Are gehiago, balio erantsi bat emango lioke horrek euren taberna-jatetxe-kafetegiari mundu globalizatu honetan.

Bukatzeko, gure hurrekin eta gurasoekin jolasak burutzea aurreikusten badugu, oso garrantzitsua izango litzateke herrietako gazteak begirale eta hezitzaile izateko formatzea, gainerakoan kanpoko kontratazioetara jo beharrik gabe.

7. Kirola

Aipa dezagun Euskara Zerbitzutik esparru honetan azken boladan egin dugun apurrean esperientziak eskaini diguna:

2009an Aritz Azpeitiak³⁸ azterketa lan bat egin zuen bi udaletako kirol eta kultur elkarteen inguruan euskararen ezagutza eta erabileraren inguruan. Diagnostiko hori burutzeaz gain lehentasunak³⁹ ezarri zituen. Euskara Zerbitzuek euskararen aldeko lanketarako lehentasun horien artean Urolaren futbol sekzioa eta Goierri saskibaloia lehenetsi zituzten, euren baitan dabilen gazte kopuruagatik eta gazteen ezagutza bermaturik dagoela kontuan hartuz. Ez zen kirol elkarteen artean dauden arnaguneen aldeko plangintzarik eratu (herri-kirolak, ostadar mendi taldea...) baizik eta haur gazte gehien mugitzen zituzten bi elkarteak hartu ziren kontuan eurengan eragiteko.

Horretarako Ttakun elkartearen “Hezitzaileek asko egin dezakete” programa aurrera eramaten saiatu gara 2010-2011 denboraldian. Ekimenaren helburua entrenatzaile euskaldunak kontzientziatzea da euskararen arloan duten erantzukizunaz jabetzeko.

Arazoak, ordea, hasiera-hasieratik sortu ziren formazio saioak jasotzeko entrenatzaile euskaldunen faltagatik. Kirol elkarteetako zuzendaritzatik adierazten ziguten nahikoa lan izaten zutela denboraldi hasiera bakoitzean behar adina entrenatzaile aurkitzeko eta gaina euskalduna eskatzeak are konplikatuagoa bihurtuko lukeela bilaketa.

Arazo hori konpontzeko udalek zerbait egin dezaketelakoan gaude. Dirulaguntza eskainiko balitzaio demagun EGA (edo baliokidea) duen entrenatzaile bakoitzeko kirol elkarteari (suposa dezagun 300 euro EGAdun

³⁸ Azpeitia, Aritz (2009) Urretxu eta Zumarragako kirol elkarteen euskara diagnostikoa (Argitaratu gabea).

³⁹ “Lehentasunak ezartzerakoan, aurreneko postuetan geratu diren taldeak: **Goierri Saskibaloia, Urola Futbola, Urola Eskubaloia, Goierri Pilota eta Goierri Garaia Atletismoa** Bost talde handi hauek izango dira hemendik aurrera proiektuaren arreta bereganatuko dutenak” Aritz Azpeitia 2009

entrenatzaileko) ziurrenik zuzendaritzetan ere kontuan hartzen hasiko lirateke euskararen gaia. Ondoren, errazagoa izango litzateke entrenatzaile horiek kontzientziatzea. Beraz, lehenik udalek kontratazio prozesuan laguntzea ezinbestekoa dirudi ondoren entrenatzaileak kontzientziatuko baditugu.

Dena den, kirol ekitaldi gehienak eremu itxitan edo kaletik kanpo egiten dira, beraz ez dugu zuzenean gure helburuan eragingo.

8. Kulturgintza

Kirol elkarteekin egin bezala kultur elkarten diagnostikoa ere burutu zuen Aritz Azpeitiak 2009an. Oro har arnagune diren horiek elikatu eta baliatzea litzakete Fishmanek emango ligukeen gomendioa.

Horixe da larunbat goizetako azoka egunari eman dakioken “festa-giro eta kultur atsegina”. Horretarako elkarteekin akordioetara iritsiz, urteko hainbat hilabeteetan edo egun berezietan dantza, bertso saio, trikiti, txistu eta kantuen bidez alaitu liteke Zumarragako Euskadi enparantza ingurua. Gainerako hilabeteetan, megafoniatik euskal muska jarri daiteke. Proiektu erakargarri hau udaleko Kultur eta Euskara Zerbitzuetatik koordinatu daiteke.

Bestalde Udalaren ardurei dagokienez, herri edo auzoetako jaietan euskararen erabilera bermatzeko ahalegina egin beharko litzateke kale erabileraz hitz egiten ari baikara.

9. Komunikabideak

Zumarragako Udalak bi hitzarmen izan ditu orain artean euskarazko komunikabideei laguntzeko. Alde batetik Zintzo Mintzo euskara elkarteak kudeatzen zuen Otamotz Urretxu-Zumarragako herri aldizkaria eta Otamotz.com atari digitala; eta bestetik Goierriko Hedabideak kudeatzen duen Goierriko Hitza egunkaria bere atari digitalarekin. Azken hau 4 urteko hitzarmena izan da zumarragar bakoitzeko euro eta erdiko laguntza eman delarik (urtero KPIa gehituz).

Egun, 2011n bai Otamotz bai Otamotz.com Goierriko Hedabideak SLren kudeaketapean geratu dira Goierriko Hitza bezala, ondorioz, eskualde mailako proiektu bilakatzeko bidea hasi da. Zaindu beharko da orain arte Otamotzek lortu duena (gertutasuna, herritarren inplikazioa...) ez galtzeko. Dena den, une egokia izan daiteke hau, hitzarmen berri bat sinatzeko ere.

Honekin loturik, ez zaigu komeni ahaztea euskarazko komunikabideen helburua izan dela eta dela autofinantzaketa, eta ahal den neurrian horren aldeko politikak aplikatzea komeni da. Horren harira dirulaguntza gordina eman beharrena, agian, herritarrei doako harpidetzak eskaintzea izan liteke bidea, epe mugatu batekin (demagun 3-6 hilabete). Kanpainak bereziak egin daitezke adin-tartearen arabera, auzoaren arabera, dendei... hartara hasiera batean dohainik jaso dezakete Goierriko Hitza eta Otamotz eta ondoren

harpidetzarekin jarraitzeko aukera eskainiko zaie. Hartara egunkari eta aldizkaria ezagutarazteaz gain harpidetzaren bidea landu eta era berean autogestioarena landuko genuke.

Dena den, zaila da honek kale erabileran izango lukeen eragina neurtzea.

10. Teknologia berriak

Teknologia berriei dagokionean 4 helburu aipa litezke.

Lehena, eta bisitari gehien jasotzen dituen Otamotz.com atari digital arrakastatsua. Arrakastatsua diot Aztikerrek 2010ean egin zuen azterlanak hala baloratua izan delako⁴⁰. Bere funtzionamendu ona ikusirik eta herritarren aldetik duen erabilera ezinbestekoa da zerbitzu hau elikatzea, babestea eta, gutxienez, mantentzea. Fishman gogoan Mikel Zalbideren hitzak:

handik harako harreman-sareak sortu, teknologia berriak lagun, aurrez aurreko harreman-sareak sortzea nekeza edo ezinezkoa denean.

Horixe da BAEN eskalaren 6. mailan gaudenon artean oso kontuan hartzekoa.

Bigarrena gorago aipatu dugun Gazte Bideanek duen Twiter sarearen erabilera. Oso garrantzitsua da Udalaren eskumena den neurrian sare horren erabileran euskara erabilerarako irizpide argiak izatea. Eskolak bere esparrua betetzen duenez nerabeen aisialdian dugu erronka, eta antza denez ordu asko dira ordenagailu aurrean pasatzen dituztenak. Udalaren baliabideak ezaguturik ez dugu eremu gehiegi kudeatzeko gaitasunik izango, baina udalaren menpeko direnetan hizkuntz irizpide finkoekin jokatu behar dugu. Hor daude, halaber, kultur etxearen Facebooka edo liburutegiarena.

Bestalde, Zumarragako Udalaren webgunean ere euskararen txokoak herritarrei erabilgarri eta interesgarri zaizkien erremintak eskaini behar ditu: udaleko euskara datuak, dirulaguntzak, euskarazko softwareak... eta guzti hauek egunean mantendu.

Azkenik, laugarren eta azken esparrua Zumarragako Udalean martxan jartzeko asmoa den "espedienteen kudeaketa sistema" izango dugu. Bertan herritarrek izapideak burutu ahalko dituzte uneoro ezagutuaz prozesua non eta zertan den. Tramitazio hauetan euskarazko aukera ere bermaturik egon beharko du herritarren eskubidea den bezala, euskaraz edo gazteleraz izapidetua izatekoa eskubidea bermatuz.

Dena den, argi samar geratzen da oraingoan ere proposatzen ditugun ekintza hauek gehienez ere euskararen erabilera idatziari eragingo diotela eta horrek

⁴⁰ Aztiker: "Otamotz aldizkaria: irakurleak eta iritziak. Urretxu Zumarraga 2010." (Argitartu gabea)

gure helburu den kale erabileran zein eragin izan dezakeen ez da erraza neurtzen.

Horiexek dira egun egiten denari gehitu dakizkiokeen proposamenak. Baina errealia al da guztiak martxan jartzea proposatzea? Oraingoan ere Fishmani kasu egin behar:

a) premiazkoenetik abiatzeko: gerokoak gero.

Eta zeintzuk dira premiazkoenak? Bada horrentzat ere badu erantzuna soziologo estatubatuarrak:

f) Indarberritzeak galdera honi erantzun behar dio: zenbateraino lagunduko digu hurrengo belaunaldiak euskaraz egin dezan? Ez, eskolan bezala, gutxi-asko ikas dezan eta erdaraz jardun dezan. Bestalde, Saioa egiten dugunetik handik zenbat denborara agertuko den ondorio hori? Nola neurtu, konprobatu edo zehaztuko dugu mesedegarritzko kontribuzio hori?

Geuk ere helburua argi markatu dugu: kaleko ahozko erabileran euskararen presentzia handitu nahi dugu eta horri begirako ekintzak aukeratuko ditugu. Are gehiago dagoeneko martxan den neurgailu bat erabiliko dugu gure ekintzon ebaluagarri: **kale neurketa**.

4.3 Ebaluazioa: Kontuak ateratzea: saiatzeak bakarrik ez du balio. Zer ondo atera den, zer erdizka eta zer gaizki, argi eta garbi bereizi behar dugu.

Argi dago aipatu ditugun proposamen guztiek ez dutela gure helburuan era zuzenean eragingo, beraz pasa diezaiegun galbahea.

4.3.1 Galbahea

Ekar dezagun gogora beste behin ere gure helburua:

gure helburua kalean ahozko euskararen erabilera igotzea izango da.

Beraz, ebaluatzerako buruko diren ekintzok kaleko ahozko euskararen erabilera handitu den neurtu beharko dugu. Horretarako, zein ebaluatzaile hobe dagoeneko maiztasun batekin, era sistematiko batean eta metodologia zehatz bat jarraituz burutzen den kale neurketa baino?

Kale neurketa berak esango digu, lau urteren buruan (2013an beraz) kalean entzuten den euskararen kopuruan handitu den, hartara konparatu ahal izango dugu 2009ko datuekin eta helburua zenbatean bete dugun ebaluatu⁴¹.

Ez dut inor engainatu nahi: arazoak ere baditu proposatzen dugun helburu eta ebaluatzeako erak, ez baitie arazoaren zergaitiei erantzun (zergatik eman da jaitsiera?) eta ebaluazioak emango dituen emaitzek ere ez digute zergatirik emango.

Dena den, argi dago ebaluaketa era honek berak ere baldintzatzen duela gure herrietako euskararen erabilera handitzerako orduan proposatuko ditugun ekintzen zerrenda. Errepasa ditzagun ekintzok helburuaren eta ebaluatze sistemaren arabera.

- Familia transmisioan aipatu dugun proposamena haur parkeetan guraso eta haurrak elkarrekin euskaraz jolastean jartzearena hain zuzen, bat dator helburuarekin eta kale neurketaren bidez neurgarria izan liteke.
- Euskalduntze-prestakuntzari dagokionez, bi proposamen egin dira: lehena euskarazko kultur ekintzetan deskontua euskaltegiko ikasleentzat. Normalean ekintzok ez dira kalean izaten, beraz ez luke zuzenean kale erabileran eragingo. Aldiz, larunbat goizeko azokan deskontua izateak helburua betetzeaz bat geure helburuan eragina izan dezake.
- Irakaskuntzan proposatu dugun dirulaguntzaren oinarri aldaketak ez luke zuzenean kale erabileran eraginik izango.
- Udaletxe barrurako egin ditugun proposamenek ere ez lukete zuzenean eragingo kale erabileran.
- Lan munduari dagokionez, baserri eta landa eremua prestigiatzeak beharrezkoa dirudi ondoren larunbat goizeko azoka prestigiatzeko, baina ezin izango genuke kale neurketaren bidez ekintza hori neurtu. Baina larunbat goizetako azoka prestigiatzeak eragin dezake zuzenean erabileran eta horixe neurtu dezakegu.
- Aisiari dagokionez aipatzekoak dira egun Gabonetan, Pazko Astean, uztailan eta egun jakinetan kalean burutzen diren gazteentzako ekitaldiak. Horiek euskaraz burutzeak eragin zuzena izango du kaleko euskararen erabileran. Aldiz, Gazte Bideaneko hezitzaileak kontzientziatzeak, euren Twiterraren sustatzeak eta taberna barruetan egingo denak ez du zuzenean kale erabileran eragingo. Bai ordea, zeharka bada ere gazte horiek begirale edo hezitzaile izateko prestatzeak.
- Kirolean ere euskararen erabileran eragiteko proposamenak egin ditugun arren, ez genuke kale neurketaren bidez euren eraginkortasuna ebaluatzerik izango. Honek ez du esan nahi egingarriak ez direnik, baizik eta egitekotan beste neurri batzuk hartu beharko direla ekintzok ebaluatzeako.

⁴¹ Noski aurrera eramango balira ekintzak, ekintza bakoitza ebaluatu beharko litzateke lortzen den emaitzaren arabera. Horretarako interesgarria litzateke haur-parke eta azokako datu zehatzak bereiztea kale neurketan.

- Kulturgintzan berriz, gure helburuarekin bat letorke aipaturiko emanaldiak antolatu eta eskaintzea larunbat goizetan. Baita herri eta auzoko jaietan ahozkoan egiten den euskararen erabileran ere, nahiz eta kale neurketarekin ebaluatuko ez genukeen kale erabileran eragin baitezake.
- Komunikabideei dagokienez idatziak aipatu ditugu eta hauek nekez eragin dezakete kaleko euskararen erabileran.
- Gauza bera esan behar teknologia berriei dagokienez. Euskararen idatziko erabileran eragiten duen arren, ez ordea kaleko ahozko erabileran.

Esan beharrik ez dago ekintza bakoitzak bere ebaluatzea izango lukeela eta kale neurketak gure helburuaren betetze maila neurtuko lukeela.

Ondorioz, eta azkenik irakurle maite, hauxe izango litzateke gure proposamena kalean entzuten den euskararen erabilera handitzen ahalegintzeko:

4.3.2 Laburbilduz:

Helburua: Urretxu-Zumarragan kalean entzuten den euskara kopurua handitzea.

Orain arte EBPNTik egiten direnez gain, hiru ekintza bide proposatzen ditugu:

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. Haur parkeetako euskararen erabileran eragin.2. Larunbat goizetako azoka euskal eremu bihurtu.3. Gazte Aste, Pazko Aste, Udalekuen eta herri eta auzoetako jaietan egiten den euskararen erabileraren kontrolatu eta sustatu |
|---|

Horixe da Hizkuntzaren Indarberitzearen oinarriak kontuan hartuz kaleetako euskara erabilera handitzeko markatuko nituzkeen ildo nagusiak. Proposamen batzuk ere eman ditugu 4.2 atalean irizpide bezala balio dezaketenak, baina ziurrenik ekimenak martxan jartzerakoan moldaketa egin beharko dira.

5. AZKEN HITZAK

Fishmanen oinarriari jarraituz lagunartea eta auzo hurbila eta eguneroko kale-bizitzan eragiteko proposamen egiten saiatu gara. Euskaldunek euskaldunekin euskaraz egin dezaten topaguneka sortuz, euskaraz bizi direnei edo daitezkeenei begirada ipiniz. Guraso eta seme-alaben arteko transmisioari garrantzi berezia eskaini diogu eta gure asmoa bai azoka eta bai haur parkeak euskal arnagune izateko proposamena luzatzea izan da. Zertarako? Hurrengo belaunaldiek bai haur parkea, bai azoka eta kalea orokorrean euskaldunagoa ezagutu dezaten.

Zumarragan, 2011ko uztailaren 22an
Aitor Lizarazu Astigarraga

ERANSKINA I⁴²

Euskararen zerikusia duten Akta historikoak⁴³

Data/Fecha	Gaika Egindako Bilaketa/Búsqueda temática	Ikusi/Ver
1877, 10, 21	Se acuerda la suscripción a un ejemplar del libro Cancionero Vasco, de José Manterola	Ikusi / Ver
1882, 09, 17	Visto que la asociación Euskaltzaleak, Sociedad de Estudios Vascos, solicita una subvención para nuestra lengua y su cultura, acuerdan conceder cincuenta pesetas.	Ikusi / Ver
1885, 12, 13	Vista la comunicación de José Colá y Goiti, vecino de Vitoria, quien ofrece un libro que ha escrito con el título de La emigración vasconavarra, traducido al vasco por Marcelino Soroa y Lasa, se acuerda interesarse del precio que tiene cada ejemplar, p	Ikusi / Ver
1896, 12, 19	Vista la circular de la Comisión Provincial para que los nombres de las calles se rotulen en castellano y vascuence, se acordó aprobar la respuesta del Alcalde, a propósito de dejar en manos de S.E. la forma de cumplimentar ese acuerdo	Ikusi / Ver
1897, 01, 30	Que se adquieran placas para la doble rotulación de calles, en castellano y euskera, según diseño de la casa Elejalde, de Eibar, aunque sin plazo fijo.	Ikusi / Ver
1897, 12, 09	Vista la necesidad de debatir sobre las propuestas de los aspirantes a la plaza de médico titular de la villa, de Fidel Ostolaza, Ciriaco Muñagorri y Bernardino Ibiñaga, que poseen el vascuence, y de otras cinco personas que desconocen nuestro idioma, y	Ikusi / Ver
1898, 04, 02	Vista la que la publicación en euskera Euskal Erria es la única que se edita en la provincia, que el Ayuntamiento se suscriba a ella	Ikusi / Ver
1898, 08, 27	Vista la circular de la Comisión Provincial por la que se señala que las fiestas euskaras en vez del 10 y 11 de 09 serán el 17 y el 18, el Ayuntamiento se da por enterado	Ikusi / Ver
1899, 07, 08	Que se dé publicidad a una circular relacionada con el fomento y conservación del pasado del	Ikusi / Ver

⁴² Herri administrazioen hizkuntz plangintzen historiari erreparatuz, Zumarraga ere besteen paretsu ibili dela esan daiteke. Horretarako ikus:

Arruti, Iñaki: "Hizkuntz plangintza udalerrri mailan" (HIZNET 5.1 2011)

⁴³ Akta horien laburpenak ikusgai daude: www.zumarraga.net webgunean.

	pueblo vasco	
1899, 08, 12	<p>El concejal Castañeda explica los pasos dados y los que intenta dar cerca del predicador Mendia respecto al sermón en vascuence que dará en las fiestas euskaras.</p>	Ikusi / Ver
1904, 09, 17	<p>La Comisión Provincial recomendó la obra publicada por 07 Cejador, ensalzando la importancia, antigüedad y buenas condiciones del idioma vascongado, y se acordó quede sobre la mesa, después de recomendarla al vecindario.</p>	Ikusi / Ver
1904, 11, 19	<p>Vista la circular de la Junta Directiva Provincial de Asociación de Médicos titulares, abogando por la necesidad de que éstos, en Guipuzcoa, conozcan perfectamente el vascuence, y solicitando que, si lo creen así, se dirijan a la Diputación.para que rec</p>	Ikusi / Ver
1905, 12, 23	<p>Hechas las investigaciones pertinentes, se acepto la renuncia de Gabino Paternain como Secretario, y se acordó anunciar la vacante con el sueldo anual de 1400 pesetas, y exigiendo el idioma vascongado, o su preferencia de que posea el idioma vascongado</p>	Ikusi / Ver
1906, 10, 6	<p>La Comisión Provincial remitió las nominas correspondientes al tercer trimestre para los maestros municipales, acordando pagar y remitir cumplimentados los documentos. Y envió dos tomos del Diccionario Vasco - Español - Francés, de Resurrección Maria d</p>	Ikusi / Ver
1908, 12, 19	<p>Visto un comunicado de Arturo Campión y consortes, acordó pagar veinticinco pesetas para la impresión del Diccionario Vasco - Español - Francés, de Resurrección María de Azcue</p>	Ikusi / Ver
1910, 01, 14	<p>Vista la solicitud de algunos caseros de que se publiquen los anuncios en vascuence y castellano, por no entenderlos únicamente en castellano, se acuerda que se publiquen como se pide</p>	Ikusi / Ver
1912, 05, 17	<p>Vistas las dos obras enviadas por José Elizondo, y tituladas Ametz Gosoak, premiadas en Hernani y Segura por la Diputación, se acordó adquirirlas por diez pesetas</p>	Ikusi / Ver
1915, 05, 07	<p>Visto el manifiesto publicado en prensa de grandes personalidades de la cultura vasca señalando que piensan recoger las voces vascas en toponimia, geografía, historia, idioma, etc., y vista la solicitud de varios concejales para que se les faciliten dat</p>	Ikusi / Ver

1915, 05, 14	Visto nuevamente el escrito presentado en apoyo a los Estudios Vascos por personalidades culturales vascas, se acuerda facilitar del Archivo Municipal lo necesario a tal efecto, subvencionando dichos trabajos con cincuenta pesetas	Ikusi / Ver
1916, 02, 18	Vista la moción presentada por los concejales Fernandez de Lecuona, Aranguren y Urdangarin a favor del euskera y de los ataques a esta lengua, principalmente por el Presidente de la Academia Española y el Gobernador Civil de Vizcaya, solicitando de la D	Ikusi / Ver
1916, 02, 25	Vista nuevamente la moción presentada por varios concejales a propósito del ataque sufrido por el euskera, nuestra milenaria lengua, y visto también que no se ponían de acuerdo, se procedió a votar, ganando la posición que reprueba esos ataques, según c	Ikusi / Ver
1920, 02, 03	Se dan por enterados de que la Academia de la Lengua Vasca ha acordado dirigirse a los ayuntamientos del país, para que, en los asuntos lingüísticos que tengan relación con el idioma vasco, se atengan a las decisiones de dicha Academia.	Ikusi / Ver
1923, 04, 19	Visto que se acordó destinar cien pesetas para material, y doscientas cincuenta pesetas pesetas para premios sobre la lengua vasca, y visto que se ha consultado con la Academia Vasca qué libros serían los mejores para el estudio del euskera, y u	Ikusi / Ver
1923, 06, 14	Visto que el señor Urdangarin se ha enterado del traslado del maestro nacional de esta villa, pide que el que manden sepa el idioma vasco, y aunque el Presidente le dice que no pueden hacer nada, al final acuerdan solicitar lo que se ha propuesto.	Ikusi / Ver
1923, 07, 19	El concejal Urdangarin propone al Ayuntamiento que deben acordar felicitar al Ilustrísimo prelado diocesano por haber publicado su primera pastoral dirigida a los feligreses en vasco. El señor González le contesta, que en esta villa se ha publicado en c	Ikusi / Ver
1925, 09, 12.	Visto que el alguacil, Pedro Gurruchaga, renuncia a su cargo, y que comunica que lo hará a finales de mes, acuerdan admitir la renuncia y proceder a designar otro alguacil, imponiendo varias condiciones: que tenga entre 25 y 45 años, que sepa el idioma	Ikusi / Ver

1927, 05, 15	Visto que el soldado licenciado Juan Prieto comunica que desconoce el dialecto vasco, acuerdan comunicar a la Junta Calificadora de Aspirantes a Destinos Públicos que sigue vacante el puesto de alguacil del pueblo, y que se mantienen las condiciones ant	Ikusi / Ver
1927, 11, 21	Se acuerda anunciar la vacante de alguacil que se encargará de dar los pregones que ordene la Alcaldía: deberá conocer el idioma vascongado, tener entre veinticinco y cuarenta y cinco años, y cobrará dos mil pesetas anuales por su trabajo. Visto que el sereno municipal, Pedro Urquiola, ha fallecido, acuerdan cubrir la vacante exigiendo varias condiciones: que no tenga más de veinticinco años, y sepa el dialecto vasco; el sueldo será de 650 pesetas.	Ikusi / Ver
1928, 06, 29	Se acordó la suscripción con cien pesetas para los actos de las fiestas del Día del Euskera, que tendrá lugar en esta villa el domingo 30 de 09 de este año	Ikusi / Ver
1928, 09, 17	Se acuerda crear una plaza de sereno municipal, quien deberá cumplir las órdenes del Alcalde, no tener más de treinta y cinco años, y saber el dialecto vasco.	Ikusi / Ver
1928, 12, 29	Visto que Pablo Eguibar y Consortes, de Andoain, solicitan algún donativo para los festejos de caracter popular vasco que se van a celebrar en Andoain en honor de Manuel Larramendi, autor de la Corografía Vasca y del Diccionario Tril	Ikusi / Ver
1929, 09, 11	Visto el escrito de agradecimiento enviado por Pablo Eguibar, de Andoain, por haber contribuido este Ayuntamiento con cincuenta pesetas para la celebración del Día del Niño Euskaldun y Día del Euskera, la Comisión se dio por enterada	Ikusi / Ver
1929, 10, 14	Se deja a estudio la solicitud de José Elizondo, de San Sebastián, que pide al Ayuntamiento que compre los ejemplares que quiera de su obra, juguete cómico Atzetorkia, premiada por la Academia de Euskera.	Ikusi / Ver
1930, 06, 28	Visto que Ramón de Maruri, de Fuenterrabia, pide al Ayuntamiento que adquiera algunos ejemplares de su folleto Ilustrado Txomin Arlote, acuerdan adquirir diez ejemplares.	Ikusi / Ver

1930, 08, 29	<p>Visto que el Presidente de la asociación Euskaltzaleak pide alguna ayuda para el Día del Niño y el Día Vasco, que tendrán lugar en Vergara los días 6 y 7 de 09, acuerdan contribuir con setenta y cinco pesetas.</p>	Ikusi / Ver
1930, 11, 22.	<p>Vista una moción de la Presidencia sobre la necesidad fomentar nuestro idioma, el euskera, y con el deseo de mantenerlo y difundirlo se propone: que se destine una cantidad en los presupuestos para los centros de enseñanza de la villa; que este dinero</p>	Ikusi / Ver
1931, 05, 16	<p>Vistas las propuestas presentadas por varias casas de rótulos y placas, y viendo que la más ventajosa es la de Larramendi Hermanos, de Vitoria, se acuerda comprar a dicha casa doce placas con los nombres en castellano y vascuence de las plazas y</p>	Ikusi / Ver
1931, 08, 10	<p>Visto que el Presidente y el Secretario de la Sociedad de Estudios Vascos comunican que los día 25 y 26 de 08, en San Sebastián, y los días 28 y 29, en Bilbao, se celebrará un congreso sobre bilingüismo, y que los Ayuntamientos han de confir</p>	Ikusi / Ver
1931, 08, 18	<p>Visto que la Sociedad de Estudios Vascos solicita una subvención en favor del bilingüismo, difusión de nuestra lengua y su cultura, acuerdan dejarlo a estudio para la próxima sesión.</p>	Ikusi / Ver
1931, 08, 22	<p>Visto que la Sociedad de Estudios Vascos comunica que en breve se va a celebrar el congreso de bilingüismo en San Sebastián y Bilbao, acuerdan costear el viaje a San Sebastián a los maestros nacionales, e invitar a los de colegios particulares.</p>	Ikusi / Ver
1931, 08, 22	<p>Visto que la asociación Euskaltzaleak, Sociedad de Estudios Vascos, solicita una subvención para nuestra lengua y su cultura, acuerdan conceder cincuenta pesetas.</p>	Ikusi / Ver
1931, 12, 16	<p>Visto que se solicita la colaboración del Ayuntamiento para el libro Sabin Euskalduna, acuerdan dejarlo a estudio.</p>	Ikusi / Ver
1932, 04, 09.	<p>Se deja para estudio el escrito de la Sociedad de Estudios Vascos, que solicita alguna beca para los cursos de verano de 1932.</p>	Ikusi / Ver
1932, 07, 16	<p>Visto que el Secretario General de Euskaltzaleak solicita alguna subvención para la labor de propaganda cultural vasca, acuerdan dejarlo a estudio.</p>	Ikusi / Ver

1932, 08, 06.	Visto que el Secretario General de Euskaltzaleak solicita alguna subvención para los trabajos y propaganda del euskera, acuerdan concederle cincuenta pesetas.	Ikusi / Ver
1933, 05, 27	Visto que la Sociedad de Estudios Vascos solicita alguna subvención para los trabajos de propaganda y cursos de verano, acuerdan subvencionarles con cincuenta pesetas.	Ikusi / Ver
1933, 11, 25.	Visto que el Director de las Escuelas Legazpi, Juan Bautista Minteguiaga, comunica que tiene establecidos cursos de solfeo y euskera, y solicita ayuda para la compra de material y alguna subvención para los profesores, acuerdan dejarlo a estudio	Ikusi / Ver
1933, 12, 09.	Visto que el Director de las Escuelas Legazpi, Juan Bautista Minteguiaga, comunica que se imparten cursos de solfeo y euskera, y solicita material y alguna subvención para los profesores que imparten dichas materias, después de votación, acuerda	Ikusi / Ver
1933, 12, 16	Los concejales Iriondo y Hernández protestan por el acuerdo tomado en la sesión anterior, ya que discrepan ante el acuerdo de conceder mil pesetas a los profesores que impartirán gratuitamente euskera y solfeo en las Escuelas Legazpi, y porque d	Ikusi / Ver
1934, 05, 22.	Visto que la Asociación Euskaltzaleak solicita alguna subvención para la ayuda de publicaciones de poesías vascas, acuerdan concederles veinticinco pesetas.	Ikusi / Ver
1934, 06, 02.	Visto que el Alcalde de Zarauz comunica que el día 10 de 06 tendrá lugar en su localidad el Día de la Poesía Vasca, e invita al acto a este Ayuntamiento, solicitando que adquiera ejemplares del libro de Fábulas, de fray Mateo de Zabal	Ikusi / Ver
1934, 06, 02.	Visto que la Sociedad de Estudios Vascos solicita alguna ayuda para proporcionar becas a alumnos que deseen asistir a los cursos de verano del VI Congreso de Estudios Vascos, acuerdan enviar cincuenta pesetas.	Ikusi / Ver
1934, 09, 07	Vista la comunicación del Alcalde de San Sebastián, Sasiain, informando sobre la reunión de los comités ejecutivos de los Ayuntamientos vascos, informando de su decisión de dimitir colectivamente estos entes municipales, se acordó entregar en este momen	Ikusi / Ver

- 1935, 03, 13. Se acuerdan varias condiciones para cubrir la vacante de veterinario de la villa. Así, se decide que que abonarán al empleado mil cincuenta pesetas anuales, que debe tener conocimiento del idioma vascongado, que ha de tener menos de treinta y cinco años [Ikusi](#) / [Ver](#)
- 1935, 05, 08 Visto que el Presidente y Secretario de la Sociedad de Estudios Vascos solicitan que se acuerde destinar alguna beca para los cursos que tendrán lugar en verano, acuerdan enviar cincuenta pesetas. [Ikusi](#) / [Ver](#)
- 1936, 05, 07. Visto que la Sociedad de Estudios Vascos solicita alguna subvención para los cursos de verano, acuerdan enviar cincuenta pesetas para los gastos de organización y demás de dicha sociedad. [Ikusi](#) / [Ver](#)
- 1936, 05, 07. Visto que Luis Calvo solicita la adquisición del libro Literatura Popular del País Vasco del académico español y director de la Academia de la Lengua Vasca, Resurrección María de Azkue, siendo su importe de veinticinco pesetas, acuerdan [Ikusi](#) / [Ver](#)
- 1936, 07, 16. Visto que el día 19 de 07 se celebra en el Hogar Vasco de Madrid un homenaje al músico y compositor de esta villa, Ignacio Sagastizabal, acuerdan adherirse al mismo. [Ikusi](#) / [Ver](#)

Akta historikoei erreparatuz, badirudi halako pizkunde bat sentitu zela Zumarragan ere XIX. Mendearen azken herenetik Gerra Zibilaren garaira arte. Gerra zibilaren ondorengo aktetan erreparatuz ez dago euskararen inguruko erreferentziarik.

ERANSKINA II

ZUMARRAGAKO EUSKARA BIZIBERRITZE PLAN NAGUSIA 2010: ekintzen deskribapena

Zumarragako Udalak 2009an, Osoko Bilkuran eta aho-batez, onartu zuen 2009-2012 Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren Plan Estrategikoa⁴⁴. Honen barruan kokatzen da jarraian era eskematikoan azaltzen den 2010⁴⁵eko kudeaketa planeko ekintzen deskribapena, hartara Zumarragako Udalean egiten ari den a ezagutzeko⁴⁶.

1. Familia transmisioa

1.1. Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

1.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

Herrian jaiotzen diren haurren gurasoei gutuna bidali zaie alkatearen eta euskara batzordeburuaren izenean, alde batetik zorionak emateko, eta bestetik, familiak hizkuntzaren transmisioan duen garrantzia ikustarazteko. Gutun horrekin batera liburuxka bat bidali zaie, euskaltegiak euskara ikasteko eskaintzen duen aukeraren berri emanez. Eta gainera, opari gisa edo, haurrarentzako autoan jartzeko pegatina eta lo kanten CDa ere banatzen zaie jaioberrien gurasoei.

1.1.2. KOMUNIKAZIOA

Eguberrietako jaien aurretik, udalak euskarazko produktuen katalogoa banatu zaie eskola umeen guraso guztiei, eguberrietako oparia aukeratzerakoan euskaraz dauden opariei buruzko informazioa izan dezaten. Durangoko azokaren aurretik burutu ohi da banaketa.

1.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

Herriko ikastetxeek euskal tradizioarekin lotura duten kultur ekitaldiak antolatzen dituzte urtean zehar, ikasleentzat eta gurasoentzat: Gabonetan, Santa Ageda bezperan, ikasturte amaieran, ... Udalak diruz lagundu ditu ekitaldi

⁴⁴ Herri administrazioetako plangintzei buruz eta EBPNren aplikazioari buruz gehiago jakin nahi duenarentzat hemen bi erreferentzia:

Arruti, Iñaki: "Hizkuntza plangintza udalerrri mailan" (HIZNET 5.1 2011)

A. Arrieta eta P. Mendizabal: "Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra" (HIZNET 4.2 2011)

⁴⁵ 2011ko kudeaketa planak aldaketak jasan ditzake gobernu aldaketa dela-eta, horixe da 2010eko kudeaketa aukeratzearen arrazoia.

⁴⁶ Helburua egun egiten dena ezagutzea denez, ezabatu egin ditugu ekintzaren hartzaile kopuruak, gizon eta emakume portzentajeak, hartzaileen adinak eta gastu sarreraren zenbatekoak. Dena den, interesa duenak Euskara Zerbitzura hurbil daiteke eurok ezagutzera.

horiek, ikastetxeei banatzen zaien eskolaz kanpoko ekintzen dirulaguntzen barruan kokatzen baita.

2. Euskalduntzea-prestakuntza

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

2.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

Urtean zehar hainbat iragarki argitaratu dira Goierriko Hitzan euskararen inguruan informatuz eta sentibilizatuz. Horretaz gain egun jakinetako iragarkiak eta egutegiak: mahai egutegiak eta poltsikokoak.

2.1.2. KOMUNIKAZIOA

Euskara ikastaroei buruzko liburuxka: Udalak liburuxka argitaratu du ikasturte hasieran (irailean) euskara ikasteko eta lantzeko dagoen eskaintzarekin. Horrez gain, web orrian, prentsan, eta abarretan ematen da informazioa.

2.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Dirulaguntza eman udako ikastaroetara joateagatik.

2.1.4. IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI

Mintzalaguna egitasmoa: Helburua, 4-5 laguneko taldetan euskaraz mintzatzea, edozein gairi buruz. Euskaldun zahar baten gidaritzapean, beste 3-4 lagunek osatzen dute taldea.

Etorkin helduentzako "Ongi Etorri" ikastaro laburra: herrian erroldatuta dauden etorkinei ikastaro berezia eskaini zaie: agurra, norbere buruaren aurkezpena, esaldi motzak, kortesia, ..., udal euskaltegiko irakasle batek gidatuta. Bestalde, haur eta gaztetxo etorkinei euskarako errefortzu saioak eskaini zaizkie, udalak kontratatutako begiraleekin. Modu ludikoan ikasten dute euskaraz: ipuinak, jolasak, abestiak, ...

Liburu lanketa" izeneko ekimena gauzatzen da ikasturtean zehar, udal euskaltegian izena ematen duten irakurle talde interesatu batekin. Hilero liburu bat irakurri eta gidari-irakasle batekin liburua landu dute. Ikasturtean zehar hiru idazle entzutetsu ekarri dira eta solasaldia egiten da idazle eta irakurleen artean.

2.2. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

2.2.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Gure Txoko Jubilatu Elkartean euskara eskolak eman ditu AEK euskaltegiak. Astean bitan bildu dira ordu eta erdiko saioetan, urritik maiatzera.

3. Irakaskuntza

3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

Herriko ikastetxeek hainbat jarduera antolatzen dituzte eskolaz kanpo, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin; hala nola, kultur ekitaldiak, kirol ekitaldiak, irteerak, egonaldiak, e.a... Udalak diru-atal bat dauka izendatuta jarduera horietarako diru-laguntzak emateko.

5. Lan mundua

5.2. Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

5.2.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Urola Garaia Mankomunitate mailan merkataritzan euskara bultzatzeko plana garatu da aurten ere: ikastaro laburrak, Mintzalaguna dendarien artean, kanpaina bereziak, aholkularitza...

Udalak deialdia egin du dendetako errotuluak, irudi korporatiboa eta web orriak euskaraz jartzeko dirulaguntzak emateko.

Eskualdeko merkataritzan euskara bultzatzeko planaren barruan, urtero egiten da dendarien ahalegina saritzeko ekitaldi bat.

6. Aisia

6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

6.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

Urtean zehar haur eta gaztetxoentzako aisialdi ekintzak antolatu ditu Udalak euskaraz, eskolaz kanpo modu ludikoan eta jolas giroan euskaraz aritzeko aukera izan dezaten; hala nola, **Pazkoa Asteko ekintzak, udaleku irekiak, Eguberrietako Gazte Astea, herriko jai nagusietan, inauterietan, ...**

Martxan da Nerabeentzako Zerbitzu berria: Gazte Bidean. Helburua nerabeei euren aisialdia urte osoan zehar aurrera eramateko erremintak eskaintzea da, horretarako lokal bat eta bi begirale izango dituztelarik. Lehentasuna izango du euskararen erabilerak.

7. Kirola

7.1. Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

7.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Mankomunitateko ikastetxeak kontratazio baten bidez eskolaz kanpoko **eskola kirola euskaraz** eskaini dute. Entrenamenduan astean bitan izan dira eta partidak larunbatetan. Kirol ezberdinak latzen dituzten urtean zehar bai taldeka bai bakarka. Ikasturte amaieran jaialdi bat burutu dute elkarrekin. Ebaluazioari dagokionez, asteroko bilerez gain, kurtso amaieran ikastetxeko ordezkari, udaletako teknikari eta kudeatzen duen enpresaren artean egindako lana ebaluatzen da eta aurrera begirako hobekuntzak proposatzen.

8. Kulturgintza

8.1. Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

8.1.2. KOMUNIKAZIOA

Hilero Urretxu eta Zumarragako Udalek hilabeteko kultur agenda argitaratu eta udalerrietako etxeetara bidali dute herritarrek kultur egitarauaren berri izan dezaten. Agenda elebietan agertzen da baina euskarari lehentasuna emanaz.

8.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

Haur eta gaztetxoei euskarazko ikuskizunak eskaintzen zaizkie kultur egitarauaren barruan eskolaz kanpo: antzerkia, zinea eta beste hainbat ekintza.

Urretxu Zumarragako Bertso-eskolak antolaturik aurten ere "Martxoan Bertsoa" ekimena burutu da. Hainbat ekintza antolatzen ditu eskolak, besteak beste: herriko bertso txapelketa, bertso musikatuak, bertso afaria, bertso paper lehiaketa, klase irekia, bertso-eskolako gaztetxoen antzerkia...

Aurten ere Urretxuko Udalarekin batera hainbat ikuskizun adostu dira urte honetarako. Antzezlanei dagokionez aurten 3 euskal antzezlan ikusteko aukera izan dugu. Kontzertuei dagokionez hainbat kontzertu eta ziklo antolatuko dira herriko festetatik kanpo. Honez gain aurten ere izango da abenduko ohiko bertso jaialdia.

8.2. Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

8.2.3. EKITALDIAK ANTOLATU

Urretxu Zumarragako Bertso Eskolak Zumarraga eta Urretxuko Udalen laguntzaz kudeatzen du. Bi taldetan banatuta dago: gazteen taldea eta helduen taldea. Helburuak bertsojaritza ezagutu, ahoz, idatziz, doinuak landu, euskararekin jolastu, txapelketetan parte hartu (idatziz, ahoz), bertso saioetara joan, herriko bertso ekitaldietan parte hartu Gazteen mailan primerako fruituak ematen ari den ekimena dugu hau.

Iparragirre sariak idazle gazteentzako, euren sormena suspertu eta bultzatzeko helburuarekin sortu ziren. Lehiaketaren irabazleek jasotzen duten saria euren lana liburu batean eta merkatuan ikustea da. Halaber eta gaztetxoek bertso zaletasuna sustatzeko asmoz urtero burutzen da "Eskolarteko bertso paper lehiaketa". Haez gain kontuan hartzekoa da Eguberrietan izaten den krisma lehiaketa.

8.3. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu

8.3.2. EKITALDIAK ANTOLATU

Urtero bezala, Liburuak plazara izeneko jarduera antolatu dute Urretxu eta Zumarragako liburutegiek elkarlanean. Besteak beste ekintza hauek antolatu dituzten: bi ipuin kontaketa eta liburu azoka. Azken hau, Kalebarren-Areizaga plazan buru zen. Bertan liburu zaharra utzi eta dohainik beste bat hartzeko aukera zegoen. Guzti hau liburuaren egunaren inguruan antolatzen da.

Gaztetxoenei, Lehen hezkuntzako lehen mailako ikasleei, ipuinen mundura eta liburuetara hurbiltzeko ipuin kontaketa. Honez gain ez da ahaztu behar nerabeei eskaintzen zaien Gaztezulorako 6 hilabetetako harpidetza.

10. Teknologia berriak

10.1. Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

10.1.3. ESKAINTZA SUSTATU

Udalaren web orriko Euskararen Txokoan aurten egokitzeak eta eguneratzeak eman dira.

Otamotz.com Urretxu Zumarragako atari digital honek eguneko informazioa eskuratu, elikatu eta hedatzeko aukera eskaintzen digu. Eguneroko albisteak une oro albistegi digitalean biltzen dira eta gaurkotasunez eskualdeko informazioa irakurtzeko aukera eskaintzen die herritarrei. Gainera, albistegi izateaz gain, eztabaida gunea ere bada, eta bi herriotako hainbat gairen gaineko iritziak eman ahal dira. Honetaz gain, bi herrietan ematen diren ekintzen inguruko bideoak ere sartzen dira egun. Komunikabide hau aurrera eramateko urtero hitzarmen bat sinatzen da.

Eranskina III

Urretxu eta Zumarragako udalek elkarlanean adostutako oinarriak izaten dira, urtez urte egokituak. Ofizialki [2011ko martxoaren 11 GAO](#) argitaratu ziren

IRAKASKUNTZA ARAUTUAREN EREMUAN DIHARDUTEN IKASTETXEEK ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

1. XEDEA

Deialdi honen xedea ikastetxeek eskolaz kanpoko jarduerak burutzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da, Urretxun eta Zumarragan irakaskuntza arautuaren eremuan dihardutenak.

Honako hauek izango dute lehentasuna: euskararen erabilera bultzatuko dutenak, baloreetan hezteko ekintzak, aisialdian hezteko ekintzak, hezkidetza, prebentzio komunitarioa, garapen iraunkorra, herritarren parte hartzea eta irakaskuntzaren kalitatea.

Ez dira diruz lagunduko ondoko kontzeptuak:

- a) Azpiegiturako obra-gastuak, inbertsioak, ondasun higiezinak erostea eta altzariak eta ekipamendua erostea.
- b) Ikastetxearen mantenimendu eta funtzionamendu gastuak.
- c) Udaleko beste sail batzuetatik lagundutako jarduerak.
- d) Ikastetxeko plantilako langileen gastuak.

2. ONURADUNAK

Dirulaguntza eskatu dezakete Urretxun eta Zumarragan egoitza eta jarduera eremua dituzten ikastetxeek, betiere haien jarduera bat badatorrelarik deialdi honetako helburuarekin. Ikastetxeek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- a) **Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako** edota **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** etapak ematea.
- b) Ikastetxeak Urretxu eta Zumarragako udalerrietan emango du bere hezkuntza jarduera.

3. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

Ikasturteari dagokion eskabidea, 2011eko maiatzaren 31 baino lehen aurkeztu

beharko da eta dirulaguntzari dagokion justifikapena urte horretako azaroaren 15a baino lehen.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerarekin batera, Zumarragako Udalak 2011. urterako ezarrita dituen dirulaguntza programak arautzen dituzten oinarri-arauetako 6. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Besteak beste:

- a) Eskabide eredua modu egokian beteta. Eredua hori udaletxeko bulego nagusian eskuratu ahal izango da.
- b) Eskabidearekin batera ikasturtean burutzea aurreikusten diren ekintzen memoria, euren diru-aurrekontuarekin bai gastuei bai sarrerei dagokienez.
- c) Justifikapenean ekintzen memoria zehatza, bertan burututako ekintzen fakturekin eta sarreren berri emanaz. Beti ere Euskara Zerbitzuak eskaintzen duen ereduaren arabera.

5. IZAPIDETZEAZ ARDURATUKO DEN ADMINISTRAZIO ATALA

Euskara, Hezkuntza eta Gazteria Batzordeak izapidetuko ditu eskabideak eta Tokiko Gobernu Batzordeak hartuko du erabakia.

Eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren, hilabeteko epearen barruan hartuko da erabakia eta horrela jakinaraziko zaio interesatuari.

6. BALORATZEKO IRIZPIDEAK. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Dirulaguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Ikastetxeak antolatu dituen jardueretan euskara bermatuko da.
- b) Baloreetan hezteak, aisialdian hezteak eta prebentzio komunitarioa bultzatzea.
- c) Genero ikuspegia txertatzea edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.
- d) Garapen iraunkorra eta herritarren parte hartzea sustatzea.
- e) Dirulaguntza jaso behar duen ekintza 2010-2011 ikasturtean egindakoa izango da.

7. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira irizpide

hauek:

a) Urretxuko eta Zumarragako Udalek bi herrien artean unean-unean erabiltzen diren portzentajeen arabera egingo dute poltsa hori osatzeko ekarpena.

b) Banaketa egiteko erabiliko den irizpidea ikasle kopurua izango da. Dirulaguntza eman aurreko ikasturtean zehar matrikulatutako ikasle kopurua hartuko da kontuan. Ikasleko dagokion kopurua izango da ikastetxeek gehienez jaso dezaketena.

8. AURREKONTUA

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 54.109,00 €-koa da, eta «1.1300.481.422.00.01-182 – dirulaguntza: irakaskuntza» partidatik finantzatuko da.

Aurrekontuaren kopuru osoa erabiliko ez balitz, dagoen dirua ez da urtean zehar egon diren eskaera guztien artean banatuko.

Aipatutako kopurua handitu egin ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

9. ORDAINTZEKO ERA ETA EPEAK

Dirulaguntzak ematerakoan udalak bi ordainketa egingo ditu:

1. %60 ekainean, eskaera eta aurreikuspena aurkeztutakoan.

2. %40 abenduan, ikasturtea amaitu eta burutu diren jarduerak faktura bidez justifikatutakoan.

Ikastetxeak egindako eta behar bezala justifikatutako jardueren arabera, eskatzaileak dagokion diru kopuru osoa jaso ahal izango du, beti ere deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera.

Ezarritako baldintzaren bat beteko ez balitz edo aurreikusitako jardueraren bat egingo ez balitz, Udalak aurrerapen gisa emandako diru kopurua itzultzea eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren, hilabeteko epearen barruan hartuko da erabakia eta horrela jakinaraziko zaio interesatuari.

Interesatuak jakinarazpena jaso eta hilabeteko epearen barruan jasoko dute dirulaguntza onartutakoek.

10. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA

Oinarri-arau espezifiko hauetako 4. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak; dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira.

BIBLIOGRAFIA

- Hernández, Jone Miren (2011), "Eta hizkuntza kare-morteroa balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa".
- Soziolinguistika klusterrak 2009an buruturiko "Urretxu eta Zumarragako euskararen erabileraren kale neurketa datuak" eta aurreko urteetatik izan den bilakaera.
- Zumarragako Udaleko akta historikoak: bertan euskaren inguruan harturiko erabakiak edo esanikoak hartuko dira kontuan.
- Zuazo, Koldo (2001) ikasturteko "Soziolinguistika" ikasgaiaren apunteak
- Prada, Antonio (1999), "Centenario de las fiestas Eúscaras en Zumarraga (1899-1999).
- Zumarragako Udaleko erroldatze datu historikoak.
- Mikel Zalbide eta Xabier Erize (2010) "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko".
- Zumarragako Udaleko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren 2011ko kudeaketa plana.
- Lasa, Xabier (2003) Urretxu eta Zumarragako euskara.
- Eusko Jaurlaritza (2006) IV. Mapa soziolinguistikoa.